



Jann-Marc Rouillan,
Action Directe

Trantsizioak erakusketa
Argia Egunean

Joserra Senperena

ERREFUXIATUEN KRISIA
ARDURAREN
ORDEZ, HESIAK

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com



Azaleko argazkia:
GEORGI LICOVSKI/EPA/
LAFOTOTECA.COM

Azala: ANTZA
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



ARGIAKO edukiak kopiatu,
moldatu, zabaldu eta
argitaratu ditzakezu, gure
egileta aitortu eta baldintza
beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria:
Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-
Pertsonaia: Mikel Garcia. Irizkiak: Mikel Asurmendi. Kultura:
Gorka Bereziartua, Garbine Ubeda. Aisia: Unai Brea.
Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria.
Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua:
Lander Arbelaitz. www.argia.eus: Jon Torner. Multimedia: Axier
Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produkzioa: ANTZA, S.A.L.

Harpidetza: Iraitz Agirre. Salmentak: Karlos Olasolo.
Idazkaritza teknikoa: Aloña Sorraluze. Publizitatea: Idoia Arregi,
Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta,
Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen
Loiarte. Harrera: Jone Arzallus. Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-
Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa
Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña.
Tel: 559 473163. Bizkaia: Eleizalde 1,
2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580 Nafarroa: Gazteluko
Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel:
948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala:
komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpidetza@argia.eus.
Erredakzioa: kazeta@argia.eus. Interneten: www.argia.eus.
Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X.
Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L.
Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko
harpidetza: Euskal Herria eta Espainia: asterokoa, 145 euro;
hilean bi ale, 77 euro; hilean behinekora, 41 euro. Beste
atzeriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

NON ZER

2015eko irailaren 6a, 2.473. zenbakia

ASTEKO GAIA

GALIZIAR MAREAK Hau ez da Madrilén gertatu.

DAVID LOMBAO / 4

PERTSONAIA

JANN-MARC ROUILLAN: «Denok gaude baldintzapeko
askatasunean, baina nik badakit». SUSTRAI COLINA / 9

GAIK

ERREFUXIATU KRISIA «Krisi humanitarioaz ari denean,
Europak gehitu beharko luke betebeharrak legala ere baduela».

MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 14

TRANSIZIOAK ERAKUSKETA Lau hamarkadarako
erlaketak hamaika iruditan. URKO APAOLAZA AVILA / 17

IRITZIAREN LEIHOA

DOÑA SEBASTIANA JUNE FERNÁNDEZ / 20

ARROSATIK GORRIRA INMA ERREA / 22

ARGI-ITZALAK JOXE IRIARTE 'BIKILA' / 23

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 21

TXANDAN Lehorretik. EDU ZELAIETA / 22

ERDIKO KAIERA

JOSERRA SENPERENA: «Musikaririk onena zineman egiten da
gaur egun». JONI UBEDA / 24

LITERATURA XABIER ETXANIZ ERLE / 28

MUSIKA JOXI UBEDA / 29

ZINEMA GAIZKA IZAGIRRE / 30

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO / 31

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 32

● **BIZI BARATZEA, EMAN ETA HARTU** / 33

ZIENTZIA JOXERRA AIZPURUA SARASOLA / 34

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 35

TERMOMETROA

BINGEN AMADOZ: «Gerra zibileko *matoi* asko lasai ederrean hil
ziren, inolako damurik gabe». KOLDO AZKUNE ETXEBARRI / 37

GURE GENEALOGIA FEMINISTAK LIBURUA Feminismoaz
irakurtzen, euskalgintzako betaurrekoak jantzita.
TXERRA RODRIGUEZ / 40

EUSKALERRIA IRRATIAK BADU LIZENTZIA «Funtsean gure
eskubideen jabe izatea irabazi dugu». XABIER LETONA / 42

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 43

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 43

NET HURBIL Eta 2015eko abuztuan 2008ko krisitzarra
berpiztu zen. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 44

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 46

Hau ez da Madrilen gertatu

Gerora “mareak” etiketa orokorrarekin izendatu diren udal hautagaitzek, oro har, arrakasta handia lortu zuten Galizian maiatzeko udal hauteskundeetan. Batez ere A Coruña probintziako hiru hiri nagusietan jo zuten kolpea, hiruretan alkatetza eskuratu baitzuten. Ezkerreko alderdiek eta herritar mugimendu ugariak olatu haren indarra baliatu nahi dute orain, Espainiako eta Galiziako hauteskundeetan formula errepikatzeke. Batasuna gauzatzea ez da hain erraza, ordea.

| DAVID LOMBAO |



MAREA ATLÁNTICA - CC BY SA

A Coruñako Marea Atlántica hautagaitzako kideak, Podemoseko Pablo Iglesiasekin batera, maiatzaren 24 gauean garaipena ospatzen. Iglesiasen aldamenean ageri da Xulio Ferreiro, hiriko alkatetza eskuratu zuen hautagaia.

2012KO URTARRILEKO azken egunetan, politikoki antolatutako galiziarren zati esanguratsu bati eskemak hankaz gora jarri zitzaizkion, eta sektore bati bihotza erdiratu ere bai. Urteetako tentsio ugarien ostean, Amioko azokagunean (Compostelan) egindako BNGren nazio batzarrak hausturaren bidea ireki zuen alderdi soberanistan. Zatiketa handik oso gutxira gauzatu zen, Xosé Manuel Beiras buru zuen

Encontro Irmandiño taldeak alde egin zuenean. Luze gabe bide beretik jo zuten beste talde eta militante batzuek. Okerra litzateke pentsatzea gertakari hura izan zela M24an ustekabeko emaitzak lortu zituzten marea izeneko udal hautagaitzen jatorria, baina maila bereko okerra litzateke ez konturatzea Bloqueko zatiketa dela gertakari politiko horren abiapuntuetako bat. Mareek ezusteko galanta

eman diote galiziar ekosistema politikoaren zati handi bati. Hainbat analisik hala iradoki duten arren, zaila da haiek azaltzea madrildar dinamika politikoaren erreproduzio hutsa bailiran.

BNGren hausturatik urte erdi besterik igaro ez zela, Xuntako presidente Alberto Núñez Feijóok 2013ko udaberrian egitekoak ziren hauteskundeak aurreratzea erabaki zuen. Popularrak aitzinatze horren alde egitera eraman zuten faktoreen artean, oposizioa ia guztiz indargabetuta egotea zen nagusia: PSdeG-PSOEek aukeratzeke zuen hautagaia, eta BNGk guztiz burutu gabe zeukan Amion gertatutakoaren digestioa.

Bitartean, Bloque-tik aldentutako taldeak, eta haiengana hurbiltzen ari ziren pertsonak eta antolakundeak, irakinaldi betean zeuden. Novo Proxecto Común behin-behineko izena eman zitzaionaren zati bat Anova-Irmandade Nacionalista bihurtua zen, Beiras buru, eta beste talde txiki batzuk, banakako zenbait militanterekin batera, hasiak ziren Compromiso por Galicia zentro-ezkerreko alderdi *gallegista* mar txan jartzen. Denek ekin zioten, arrapaladan, ustekabean deitutako hauteskundeetarako elkarguneak bilatzeari.

AGE izeneko kometa

Testuinguru hartan jaio zen mareen beste ernamuietako bat. Hainbat forotan segurutzat jotzen zen galiziar hautesleek hamarkada bat baino gehiagoz Parlamentua osatu zuten hiru alderdien —PP, PSOE eta BNG— eta Bloque-a utzia zutenen batasunaren artean aukeratu beharko zutela, baina orduan gidoia aldatzen hasi zen.

Munduko Foro Sozialean eta antzeko guneetan mugimendu altermundistarekin hainbat urtez harremanean eman ondoren, eta M15ean gertatutakoa eta haren eztanda uhina arretaz behatu ondoren, Beirasek eta haren inguruak areagotu egin zituzten eskui-naren aurkako “fronte zabala” osatzeko deiak. Fronte hartan, azaldu zutenek, ezker soberanistarentzat ez ezik lekua zegoen beste indar batzuentzat ere; esaterako, Esquerda Unidarentzat (EU). Azkenean, EUk Anovarerekin bat egin zuen, eta Espazo Ecosocialistarekin eta Equorekin batera Alternativa Galega de Esquerda (AGE) sortu zuten.

Anxo Lugalde kazetariak *De Beiras a Podemos: A política galega nos tempos da troika* (Beirasengan-dik Podemosera: galiziar politika troikaren aroan) saiakeran azaldu bezala, krisiaren eta murrizketa larrien urteetan pilatutako sumindura ezkerretik bideratzeko sortua zen hautes-tresna baten gidaritzat hartu zuen buruzagi abertzale historikoak. Haren karisma, troikaren aginduei —kasu honetan Núñez Feijóorekin



BNGren XIII. Nazio Batzarra, 2012ko urtarrilean Santiago de Compostelan egindakoa. Batzar horretan hasi zen gauzatzen koalizioaren zatiketa, gerora Anova alderdiaren sorrerarekin burutu zena. Haustura hura da udaletako mareen fenomeno ulertzeko gakoetako bat, baina ez bakarra.

identifikaturik— amaiera emateko lelo nagusiarekin batera, nahikoa izan zen AGEk bozak jaso zitzaen bai abertzaletasunetik, bai PSOEko sektore desengainatuetatik, bai eta Ezkerreko Unidak Galizian duen hautesleria txikitik ere. Hala, hilabete eskas batean, Beiras buru zuen koalizioak Parlamentuko hirugarren indar bilakatzea lortu zuen, bederatzi eserleku eskuratuz, BNGk baino bi gehiago.

AGERen hauteskunde kanpaina oso bizia izan zen, ia eromenezkoa. Beiras, ordurako 80 urte betetzear zela, bigarren gaztealdi politiko betean zegoen, eta areto guztiak mukur ego-tea lortzen zuen. Haren atzealdean, antolakunde jaioberriko kide askok bere buruari galde-tzen zioten “zer gertatuko ote da”, eta zein izango litzatekeen arrakastaren tamaina kanpainak pare bat aste gehiago iraun ahal balu. Pertsona haien artean zegoen kolaboratzaile anonimo bat, IUren inguruan zebilen Madrilgo Complutense Unibertsitateko irakaslea, Pablo Iglesias izenekoa. Urtebete geroago bere AGE abiarazi zuena: Podemos.

Eta orduantxe iritsi zen Podemos

Berak behin baino gehiagotan gogorarazi due-nez, Iglesiasek ondo gogoan hartu zuen Galizian bizi izandakoa. EUko koordinatzaile Yolanda Díazen aholkulari jardun zuen Beirasean kanpaina hartan, eta bizipen hura Podemosen diseinuaren giltzarrietako bat izan zen. Galiziar laborategian, Iglesias jabetu egin zen haserrea bideratzeak emaitza onak zituela hauteskundeetan, eta horixe egin zuen 2014ko europar bozketan, bi urte lehenago Galizian AGEk jokaturako rol bera jokatuz.

Galizian, Iglesiasen alderdiak boto asko atera zuen AGEk irekitako arrantzagunetik. AGE bera, berriz, hasita zegoen “politika zaharra” esaten zaionaren ajeetako batzuk jasaten. Esaterako, diputatu batek alde egitea eragin zuen barne liskar garratza. BNGren zatike-



SEBAS ANXO



MAREA ATLÁNTICA- CC BY SA

Ezkerrean, Compostela Aberta hautagaitzaren aurkezpen ekitaldi bat. Eskuinean, Xulio Ferreiro A Coruñako Marea Atlánticako zerrendaburua, mitin batean.

ta bezala, gertakariok ez dira nahikoak, baina bai beharrezkoak, mareen sorrera ulertzeko.

Marea Atlantikoa eta haren eztanda-uhina

Europako hauteskundeetako lurrikararen ostean arnasa hartzeko ia astirik gabe, uztail erdialdean *Marea Atlántica* manifestua, hasiera batean 99 lagunek sinatutakoa, hasi zen han-hermenka agertzen A Coruñan. “A Coruña %99ri itzultzeko jaio gara”, esan zuten beren lehen ekitaldi publikoan. Han bildutako 300 lagun ingururen artean, ezkerreko indarretako eta indar abertzaleetako aurpegi ezagunak zeuden. “Batuketa prozesua da hau, eta ez buruzagitzen arteko elkarrizketa”, azaldu zuten. Haien helburua hiri osoan sare bat ehuntzea zen, urtebete geroago, ziotenez, PPren aurka borrokatzeko bertako gobernu eskuratzeko aldera. Une hartan, popularrek gehiengo absolutua zuten bertan.

Marea Atlantikoaren prozesua sektoreko hamaika bilera eginez eta auzokako “marea” gogotsuak sortuz zihoan aurrera, eta jakin-minez eta, zenbaitzuetan, inbidiaz begiratzen zioten Galiziako beste hiri batzuetatik, batez ere PPren agintepekoetatik. A Coruñako ispiluan begiratu zioten beren buruei, konparazio baterako, Santiagon Compostela Aberta plataforma bultzatzea erabaki zuten pertsonak. Antzeko zerbaite gertatu zen Ourense, eta Ourense en Común izan zen emaitza. Berdin beste hiri eta eskualde-buru batzuetan. Jaiotza horiek zalantza betetako itsasoan gertatu ziren; nagusietakoa, nolako harremana edukiko ote zuten mugimendu berriek BNGrekin, eta alderantziz.

Irakurketa bakarra, ezinezkoa

Oso zaila da, edo besterik gabe ezinezkoa, mareen fenomeno gertakari bakartzat aztertzea, haien errealitateak oso desberdinak bai-

tira, ia hauteskundeetan lortutako emaitzak bezainbat. Marea Atlantikoan, adibidez, hasieratik parte hartu zuten abertzaletasunean eta soberanismoan ibilbide luzea zuten zenbait pertsonak, hala nola estatuko ezkerreko indar politikoetako (EU, Podemos) hainbat kidek, A Coruñako herri mugimendukoekin batera. Prozesua lasaia izan zen, hilabeteak iraun zituen, eta kontsentsuzko hautagaia buru zuen zerrenda izan zen emaitza: Xulio Ferreiro, magistratua eta zuzenbide irakaslea, oinarritzko mugimendu abertzaleen eskarmentuduna, baina politikaren lehen lerroan aurrez sekula aritu gabekoa.

Prozesua askoz azkarragoa izan bazen ere, antzera gertatu zen Compostela Abertan. Plataforma, edonola ere, ez zen guztiz abiatu Martiño Noriegak –Anovako bigarrena, 2007 eta 2011n Teoko alkate aukeratua BNGrekin zerrendaburu izatea onartu zuen arte. Hala, aurreko hilabeteetan egindako lan politikoaren “traktore” bihurtu zen. Aldi berean, udal batzuetan bi ‘marea’ sortu ziren. Ferrolen, esaterako, Ferrol en Común izan zen batetik, batik bat AGE inguruko jendeak osatua Podemoseko batzuekin batera, eta marea Ártabra bestetik, Pablo Iglesiasen alderdiko kideak eta beste hainbat arlotakoak bildu zituen. Ourense, berriz, hasiera batean A Coruñako eta Santiagoko prozesuen antza zuenak porrot egun zuen azkenik, barne hauteskundeak oso nahasiak suertatu baitziren eta kideen arteko gatazka bizia eragin baitzuten.

Emaitzak

Osagai horietatik abiatuta, M24an galiziar mareek A Coruñako hiru hirietan izan zuten arrakasta batez ere. Marea Atlantikoak, Compostela Abertak eta Ferrol en Común alkate-tza lortu zuten, lehenbiziko biek zerrendaburu soberanistekin; Ferroleko kasuan, aldiz, alkate

Zailena orain dator

MAIATZAREN 24AK garaipen zapo-rea izan zuen Galiziako ezkerren eta abertzaletasunaren zati handi batentzat, baina politikan ospakizun-ek labur irauten dute –begiratu Greziari– eta garaipen bakoitzaren ostean beste erronka batzuk iristen dira. Mareek ere badituzte eurenak, bai udaletako lanari dagokionez, bai euren eboluzioari eta nazio mailan egituratzeari dagokionez. Erronka horiek gainditzeko asmatzearen menpekoea izango da haien arrakasta, eta arrakasta diogunean ez gara hauteskundeetan emaitza onak lortzeaz ari soilik, baizik eta –batez ere– jendartea eraldatzeko benetako gaitasuna izateaz. Hiru erronka erabakigarri nabarmenduko ditut.

Lehenbizikoa, inork kontuan ez duena, herritarren parte-hartzea mantendu eta handitzea da. Hautagaitza asko, funtsean, Anova eta Esquerda Unidaren (EU) arteko

koalizioak izan ziren, baina beste batzuek gizarte eragile asko elkartzea lortu zuten. Etorkizuna bermatu nahi badute, bai batzuek bai besteek euren oinarriak zabaldu behar dituzte, eta ez dute utzi behar hauteskundeetako sukarraren ostean parte-hartzea apaldu dadin.

Bigarren erronka nagusia programa guztiz definitzea da. Ulergarria izan daiteke autogobernuaren gaia, Galizian berebiziko garrantzia duena, udal hauteskundeetan eztabaidaren lehen lerroan ez egotea, baina erkidegoko eta estatuko bozetan erabakitze eskubidea balizko Marea Galega baten zutabeetako bat izan beharko litzateke. Oraingoz, badirudi tartean dabilzan ia eragile guztiek argi dutela Madrilgo Kongresuan talde galiziarra izatearen beharra, Konstituzioaren erreformaren aukera gerta daitekeen. Bestalde, arlo ekonomiko eta

sozialetan hartzen diren jarrerek adieraziko dute mareak beste PSOE bat besterik ez diren, edo 78ko erregimena benetan eraitsi nahi duen mugimendu batez ari garen.

Azkenik, beharbada Marea Galegaren erronka latzena izango da alderdietako buruzagitzek prozesua beren kontrolpean hartzea eragozteko. Benetako herri fronteia nahi duenak ez luke burokrazien mugimenduen zain egon behar. Gauzak ondo eginez gero –A Coruñan hala gertatu zen– alderdiek bi aukera baino ez dute izango: gainerako eragileekin berdintasunean bat egitea, edo hauteskundeetan zartakoa jasotzea. Berdin dio Podemos, EU, Anova edo BNG izena duten.

Raul Rios
(Novas da Galizako
kazetaria)

berria, Jorge Suárez, EUko kidea da. Galiziako lurraldean osatutako 70en bat hautagaitzak jatorri desberdinekoak dira, batzuk BNGtik iritendakoen baturatik sortuak, beste batzuk Podemosen tokian tokiko bertsioak...

Testuinguru horretan, zaila da gertatutakoa Podemos fenomenoaren errepikapen hutsa bailitzan azaltzea –Galizian jazotakoa Iglesiasen alderdia sortu baino lehenagokoa da–, edo BNGren hausturaren ondorio hutsa bailitzan. Hurrengo Espainiako hauteskundeetan, eta batez ere, 2016ko Galiziakoetan jakingo da soberanismoaren eta ezker hausturazale eta federalistaren arteko nahastetik sortutako

espazio politiko berri bat sendotzen ari den, edo aliantza horiek udal gutxi batzuetako anekdota hutsean geratuko ote diren.

Galiziar Marea?

Udal hauteskundeetan lortutako emaitza onak ikusita, ia berehala hasi ziren Marea Galega bat sortzeko aldarriak. Madrilgo Kongresurako hautagaitza izango litzateke, datorren urteko galiziar hauteskundeetarako proba-saio modura balioko lukeena.

Batasunaren aldeko urrats politiko ugari izan dira, eta batzuk oso berritzaileak. Esaterako, BNGk bere siglei uko egin izana, “galiziar




EUSKAL OROIGARRIAK

Harizko brodatu
pertsonalizatuetan adituak

Kale Nagusia, 16
San Jeronimo, 14
Portu, 14

20003 Donostia · Euskal Herria

© 650 210 339 / 618 094 279 · arkupe2@gmail.com



Galiziar Marea: herritarren proiektua PPren hegemoniari aurre egiteko

“GALIZIAR MAREAK” esamoldea erabiltzen hasi ginen, maiatzeko udal hauteskundeetan herritar plataformek lortutako arrakastaren ondoren. Hala izendatutakoek ezaugarri komun asko dituzte, baina ez dira elkarren kлона, eta espiritu berean oinarritu arren tokian tokiko dinamiken isla izan ziren.

“Marea” izendapen bera ez dago hain zabalduta. Sortutako 70 udal mugimenduetako –Galiziak 314 udal ditu– gutxi batzuek baino ez dute izen hori. A Coruña Marea Atlantikoa izan zen lehenengoa, eta ezagunena ere bada, ez hauteskundeetako arrakastagatik bakarrik, alderdi politikoek haren barruan jokatzeko duten rola bigarren mailakoa izateak erreferente “herritarzale” bihurtu dutelako baizik. Askok uste dute horixe izan beharko litzatekeela Marea Galega handi bat sortzeko eredu egokiena.

Mareek hiru ezaugarri interesgarri dituzte. Lehenengoa da oraingoz hirietako gertakaria direla. Batez ere Galiziako zazpi hirietan eta beste zenbait gune urbanotan daude, galiziar gehien-gehienak bizi diren tokietan. Bigarrenik, inongo alderditan ez dabilen pertsona askok parte hartzen dute mareetan. Kasurik nabarmenena A Coruñakoa da. Eskuratu zituen hamar zinegotzietatik, zazpi ez dira alderdi bateko militanteak.

Hirugarren ezaugarria galiziar nazionalismotik datorren jende kopuru handia da. Horietako asko, noski, esparru abertzaleko alderdi handiena den BNGtik datoz, batzuk independente modura, A Coruña alkate Xulio Ferreira esaterako, beste batzuk militante izandakoak. Bigarren multzo horren barruan nabarmentzen da Martiño Noriega, Santiago de Compostela-

ko alkate eta Anovako nazio bozeramailea Beirasekin batera.

Une honetan, Marea Galega baten sorrera Galiziako politikaren erdiguneetako bat da. Hainbat deialdi egin da herritarrek batasun hautagaitza baten sorreran parte har dezaten. Udaletako mareek ere ekarpena egin dezakete, hala nola PSOEn ezkerrean dauden eta Galiziaren nazio izaera onartzen duten alderdiek. Alderdi horiek izan beharko lukete prozesuaren “ordezko motorrak”, protagonismoa herritarren esku utzita. Ardatz horiek elkartuz sortuko da Marea Galega, eta hauteskundeetako garaipena lortzeko Alderdi Popularrarekin lehiatu daitekeela pentsatzea ez da zentzugabea.

Paulo Padin Alvarez
(Politologoa, Galizaleak
elkarteko kidea)

nazio hautagaitza” osatzeko. Batasunaren aldeko manifestuak han-hemen zabaltu dira, eta PSOEtik ezkerrean dauden indar politikoaren arteko hartu-emanak biderkatu egin dira, salbuespen bakarrarekin: BNGk eta Podemosek ez dute elkarrekin hitz egin.

Aldi berean, oinarrian herritarrek osatutako baina alderdien parte-hartzea ere baduten bi mugimendu –Encontro Ciudadán por una Marea Galega eta Pola Unidade–, batasunezko hautagaitza baten aldeko lanean aritu dira. Hauteskundeetan emaitza ona lortuz gero,

Madrilgo Gorteetan galiziar talde bat egotea ekar lezake horrek, historian lehen aldiz.

Prozesu bizi horretan parte hartzen ari diren eragileak ez dira ausartzen emaitza zein izango den iragartzera. Inork ez du alde aurretik balizko batasuna baztertu nahi. Hala eta guztiz ere, batek baino gehiagok iragarri du Marea markak, azkenik, Anova, Podemos, udal hautagaitzetako kideak eta are Esquerda Unida bilduko dituela, eta beste alde batetik oinarri soberanistako hautagaitza bat sortuko dela, BNGren inguruan. ■




JANN-MARC ROUILLAN

«Denok gaude baldintzapeko askatasunean, baina nik badakit»

“Avanti o popolo, alla riscossa: bandiera rossa, bandiera rossa...”

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: Dani Blanco



1968ko maiatza, 16 urte...

Lehen manifestaldiak, poliziarekin lehen kalapitak... Ikastetxeko lagunekin pop ingelese jotzen zuen talde bateko kide izatetik talde politiko bateko kide izatera pasa nintzen. Sozial-iraultzailea nuen aita, komunista ama, eskualdeko alderdi komunistaren lehen kideetako bat aitatxi, baina praktika eta ekin-tza politikoa 1968ko maiatzak eman zizkidan.

Tolosan nengoen, gorrien hiriburuan, Espainiako gerra zibileko errefuxiatuz inguraturik, eta berehala sartu nintzen legez kanpo jarduteko beldurrik ez zuen antolakunde anarko bezain egituratu batean. Espainiako iraultzan, II. Mundu Gerrako erresistentzian, eta makietan ibilitako jendearekin nenbilenez, naturala zen armen erabilera. Politikoki hezi ninduten kideak izan ziren ETA lehen aldiz

JANN-MARC ROUILLAN

masiboki armatzen lagundu zutenak. Hala, Burgoseko epaiketa denboran, Baionara bidali ninduten ETAr laguntza logistikoa ematera. ETA V.ekoekin bazkaldu eta ETA VI.ekoekin afaltzen nuen. Eszisio garaietako bitxikeriak. Handik gutxira ezagutu nuen Oriol Solé, eta ohartzerako Bartzelonan nengoen.

Tolosa, Baiona, Bartzelona... Hain sinple, hain natural?

Tolosan bizi eta, Espainiako Estatutik etorritako errefuxiatuak haizik ez zenituenengan inguruan, armen hautua berezkoa zen. Maoistek armak hartuko zituztela aldarrikatzen zuten bitartean, guk solairuetan genituen leherkari eta fusilak. Horiek hartu eta muga igarotzea naturala zen guretzat. Borroka bera zen Donostiara armak pasa edo Bartzelonan pistola soinean ibiltzea. Dena zen bizimodu zoragarri, liluragarri eta zoriontsu baten parte. 1974an, Puig Antichen exekuzioaren ostean, atxilotu ninduten Parisen, 1977an geratu nintzen aske, baina kartzelatik atera eta biharamunean ekin nion berriz borrokari. Ordurako nire antolakundea ez zen existitzen, baina trantsizioaren traizioaren aurka ari zen jende asko ezagutu nuen espetxean. Autonomoen borrokan inplikaturik, berehala nintzen Bartzelonan eta Madril. Aski fite, alta, errezeloak sortu zitzaizkidan euren borroka moldeekiko, hurbilago sentitzen nintzen autonomo italiarregandik, eta Milanera jo nuen. Hala, Frantziako eta Italiako mugimenduen arteko lotura ziurtatu nuen zenbait urtez.

Action Directe sortu arte?

Autonomiaren baitan, erasotzen edo armak pasatzen zituzten talde politiko militar guztien koordinakunde bat genuen, eta Action Directe sortzea, koordinakundeari izena aldatzea baizik ez zen izan. Parisen autonomiaren mugimendua zapartatzen ari zen, siderurgiaren aldeko ofentsiba eta borrokek pitzatzen, autonomiaren gaineko boterea nahi zuen jendeak, eta borroka armatuaren premia azkarra izaki, aitzina jo genuen. Alabaina, sasoi horri buruz ezin naiz sobera mintzatu, epaileek galarazten didate. Frantziak arazo izugarria baitu bere memoriarekin. Badakite memoria gudazelai bat dela eta memoriaren eta presoan desagerraraztearekin lotzen dute. Historian zehar, Frantziak fite ulertu du etsitzen ez zuten presoak kalitu behar zirela. Ikusi besterik ez dago Indotxina edo Aljerian praktikatu eta Argentina zein Uruguaira esportatu zuten izuaren eskola. Gerra leku guztietan jendea hilobi komunetan lurperatzen zuten bitartean,

Frantziak itsasora botatzen zituen bere etsaien hilotzak. Bitxia da, sasian nintzenean nire argazkia denetan ezartzen zuten eta orain ez dute inon ikusi nahi.

Zer da sasian bizitzea?

Ez da jendeak uste duena, ez da 24 orduz arma soinean eramatea. Denboraren %90 apartamentu batean zaude, edozeinek egiten dituen arrunkeriak egiten dituzu, zure pozak eta penak kudeatzen saiatzen zara... Ez zaude egunerokotik salbu. Gero, egia da goizean etxetik ateratzen zarelarik ez dakizula gauean itzuliko zaren. Ez dakizu etxer aldatu beharko duzun, atxilotuko zaituzten, erail... Lehen lerroan urteak irauteko mugikortasun eta indar psikologiko itzelak behar dira. Zure politizazioaz eta zure borrokaren helburu zein arrazoiez ziur egoteak baizik ez dizute ezegonkortasun hori eramaten irakasten. Zertan ari zaren garbi baduzu errepresioaren gorabehera guztiei egiten diezu aurre. Borroka iraultzailean, inperialismo eta burgesiari armekin aurka egitea deliberatzen baduzu, ezin duzu “ez da erabat nire hautua” pentsatu. Aitzina jotzen duzun unetik ardura kolektibo guztiak egiten dituzu zeure. Horregatik, borroka, sasia barne, poz izugarria da niretzat, mundu hiltzaile batetik askatu eta esperantzaz betetako talaia batean kokatzeko parada. Borroka armatua dudaz edo gaizki bizi duen militante batek ospa egin behar du, dena bertan behera utzi. Borroka armatua ez baituzu derrigortuta egiten. ETAkide damutuak borroka armatura behartu zituztela kexatzen entzuten ditudanero ez dut jakiten irri edo negar egin. Mugimendu armatu batek badaki ezin duela bere militante bat ezertara behartu. Badaki bere kideen politizazio eta arduraren baitan datzala bere arrakasta. Borroka armatua beti da kolektiboa, beti oinarritzen da ondokoarekiko konfiantzan, eta norbaitek “nik hau egin dut” esaten didanero jokoz kanpo geratzen da.

NORTASUN AGIRIA

Jann-Marc Rouillan. 1952ko abuztuaren 30ean Auchen sortua (Okzitania). MIL, GARI eta Action Directeko ezker muturreko militante historikoa. Kartzelan zein sasian sartu-irtenak egin ondoren, 1987ko otsailean atxilotu zuten, bizi osoko bi kartzela zigorrera kondenatu, eta zazpi urte eta erdiz erabateko isolamenduan atxiki. 2007an hirugarren gradua eman zioten, baina 2008ko elkarrizketa batean esandakoen ondorioz lehen gradura itzuli behar izan zuen. 2011n atera zen berriz eta baldintzapeko askatasunean dago ordutik. Beste askoren artean, *De Memoire (I, II, III)*, *Chroniques carcérales* eta *Autopsie du dehors* liburuen idazlea da.



Estatuarentzat joko kanpo geratzearen definizioa atxilotu eta zazpi urte eta erdiko erabateko isolamendua inposatzea da?

Ni hala atxiki ninduten. Hor sentitzen duzu determinazio eta ardura politikoaren indarraren garrantzia. Ezin duzu behera egin, ez daukazu eskubiderik. 24 orduko etengabeko aurrez aurreko hil ala biziko gatazkan zaude, dena egiten dute zuk etsitzeko, eta egin behar duzun bakarra ez etsitzea da. Hori da sekula ahanzi behar ez duzun bakarra. Baina zure kideak gaixotu direla edo senetik ateratzen hasita daudela iristen zaizu, solasa galtzen ari zarela ohartzen zara... Ez nintzen gehiago mintzatzeko gai, ahanzi nuen. Zure eguneko hitz bakarra funtzionarioari luzatutako agurra denean, buruan daukazu ideia eta adierazteko bidearen arteko erabateko deskonexiora iristen zara. Hasterako bukatzen nuen esaldia, eta jakina, ez zidan inork zipitzik ulertzen. Egunean pare bat orduz boz goran irakurtzen hasi nintzen, hitza ez galdu eta ahal izatera berreskuratzea zen borroka. Badakite urtebetez, bi urtez, hiru urtez eutsiko diozula, baina hutsune eta gabeziak azaleratuko zaizkizula. Hor mantendu behar da burua hotz. Estatuak demokrazian baino askoz aurreratuagoak daude torturan. Bukatu da azkazalak eraisten zizkizuten aroa, askoz muinerago jotzen dute orain.

Zer dago espetxeko harresien gibelean?

Jendartearen okerrenaren sublimazioa: erailketa, tortura, eta batez ere zaintzaileek gorpuzten duten jendeen miseria. Horri aurre egiteko erresistentzia antolatzen denean, alta, kanpoan ezinezkoak diren elkartasun sare humanoak ehuntzen dira. Hori da preso politikoon arma indartsuenetakoa. Hori bai, dena egingo dute ofizialki ez dadin preso politikorik egon. Lehenik, goizetik gauera preso politikoen figura deuseztatzen zuen dekretua onartu zuten: “Besteak bezalako preso bat zara, baina lasai, beste kupel bateko sagardoa daukagu zuretzat”. Ideologikoki oso garrantzitsua da beraientzat demokraziarekiko erresistentzia oro despolitizatzea, bestelako mundu bat amesten dugunok piztiak edo buru-gaixoak legez agertzea. Jende isolatu, zurrun, karratu, hotz eta errorik gabea garela diote, ez garela sekula maitemintzen, ez dugula afektibotasunik... Zergatik deitzen zioten Idoia Lopez Riañori “*Tigresa*”? Euren iruditerian, furiak baizik ez dezakeelako emakume bat borroka armatura eraman. Idoiaren engaiamendu politikoaren atzean ez zegoela konbikziorik agertu nahi zuten, emakume biziki gaizto baten patua baizik ez zela. Aldi berean, zer gertatzen da biziaren sakralizazioaren inguruko diskurtsoarekin? Pestizidak,



BULTZA KAZETARITZA INDEPENDENTEA EGIN HARPIDETZA

📞 943 371 545 • harpidetza@argia.eus • www.argia.eus/harpidetza

 **argia**


amianto, gerrak edo langileen esklabotza nahieran erabiltzen dituztenei betetzen zaie sermoi horrekin ahoa! Hiltzaile industrialak dira, eta guk inoiz inor hil badugu, artisauen gisan izan da. Horregatik diot ez ginela kartzelara gaizkile sartu, egin dugunaren ardura bizkarrean daramagula, eta kartzelan borrokak jarraitzen duela. Gaizkile fabrika horretan lekukotza hartu nuen borroka-moldetzat. Idaztea nire borroka politikoa jarraipena da, literatura beti baita borroka errealitate baten lekukotza.

Ez zaizu zer idatzirik faltako.

Ez pentsa. Borroka errealitate horren faltan ez dut nire burua idazteko gai ikusten. Kartzelan askoz errazagoa zitzaidan idaztea, idazten nuenean borrokan ari nintzen. Katalunian edo Venezuelan banengo luma aiseago dantzatuko nuke, baina pentze hauei begira... Borrokatzen ez dudanean opresioa nabarmenagoa da nigan. Borrokan ari naizenean askoz kontzienteagoa naiz pertsonak inolako autonomiarik ez duen jendarte tirano batean bizi garela. Ezin zara arrastotik atera, jaiotzetik heriotzara zure bizimodua bideratuta dago. Azken 25 urteotan Frantzia hiper-erreakzionario bihurtu da. Europan zein Troikan herriak aukeratu gabeko agintariak dira nagusi, eta oker ez banago, faxismoa da hori. Syriza-koak preso politiko eta kartzelekin zer egin behar zuten galdezka etorri zitzaizkidanean, ezker-muturreko indar batek amnistia aldarrikatu behar lukeela iradoki nien. Ezin zutela, NATOren eta Europar Batasunaren bi testuk preso politikoen amnistia debekatzen zutela erantzun zidaten. Amerikako Estatu Batuen babesa berme, Ingalaterra izan da IRA-ko presoekin horri aurre egin dion bakarra. Sistemak ez du kontra egin dion jendea berriz politizatu nahi. Zer ari da gertatzen Euskal Herrian? Irteera kolektiboak ukatu eta epe luzera begirako banakakoak baizik ez daudela mahai gainean. Zer da hori borroka bat despolitizatzea ez bada?

Zer idatziko zenuke barkamenaz, damuaz, kondenaz?

Preso politikoei egiten zaizkien etengabeko xantaia tipikoak direla. Espetxeratu eta 18 hilabetera hurbildu zitzaizkigun egindako guztiari bizkar ematen zion testu politiko bat



Kontraesanekin

“Ez naiz ezpal bakarreko enborra. Oso gaskoia naiz, baina aldi berean oso katalana, anti-autoritarioa, baina antolakuntza eta antolakundearen aldekoa. Kontraesana da erresistentziaren dinamismoaren motorra. Nire kontraesanek mugitzen naute eta nire kontraesanekin mugitzen naiz”.

idatziz gero kalera gindoazela esanez. Horrela izan da kartzelaldiak iraun duen mende laurdenean. Hori da sistemak preso politikoentzat duen programa. Onartzen duzu ala ez. Lizarragarazi garaian, 700 preso kolpe ateraz gero Euskal Herriko indar harremana errotik aldatzen zela esaten nien euskaldunei, presoak armekin trukatu arren bururaino jokatu beharreko karta zela. Egun, aldiz, ez dut ulertzen nola euskal eragileek ez duten preso politikoen ardatz eta altxor politikoa gehiago baloratzen. Ez dut uste euskal presoak soilik erakunde baten presoak direnik, mundua aldatu nahi dugunon presoak ere badira. Horregatik, askatzeko oso kanpaina oldarkorrek egin behar genituzke, agintari eta buruzagiak interpelatu, kalea hartu... Uneotan, alta, ez dut ikusten gaiarekiko ildo koherente eta definiturik. Hainbeste preso edukita, nola ez da izango presoena zure askapen mugimenduaren funtsetako

bat? IRA-rentzat ezinezkoa zatekeen borroka uztea presoak askatu ezean.

Zuri hirugarren gradua eman zizuten lehenik, baina elkarrizketa batean esandakoengatik preso sartu zintuzten berriz, eta baldintzapeko askatasunean zaude egun.

Hirugarren gradua paradoxa handi bat da. Oso zaila da kartzelatik ateratzea kartzelan lo egin behar duzunean. Eskizofrenikoa da bizitza bat kartzelatik nola ihes egin pentsatzen pasa eta gauero kartzelako atean zeure kabuz tinbrea jo behar izatea. Nahiago dut eskumuturreko elektronikoa jantzi ziegan egon baino, baina kondena luzatzeko modu bat da, zu kontrolpean luzaroago mantentzeko zirrikitua. Hala, elkarrizketa batean borroka armatua prozesu iraultzailearen fase bat zela aldarrikatu nuen, askapen metodo gisa gaindiezina zela, armarik gabe ez zela muturreko iraultzarik egongo. Syriza edo Podemosek garbi uzten dute burgesiaren erabateko erradikaziorik gabe ezinezkoa dela gutxieneko erreformak burutzea. Proposatzen dutena kapitalismoaren kudeaketa humanoagoa da, ez zapaldutako eta ustiatutako masen eguneroko bizitzaren eraldaketa. Horregatik, ez dago atxilotze arriskurik gabeko iraultzarik. Denok gaude baldintzapeko askatasunean, baina nik badakit. ■

«Krisi humanitarioaz ari denean, Europak gehitu beharko luke betebeharrak legala ere baduela»

Ekialde Hurbileko eta Afrika iparraldeko gatazkek behartuta, milaka biztanlek ihes egiten dute lurralde seguruagoen bila, baina asiloa emateko garaian, errezeloz begiratzen ditu Europar Batasunak, dituen betebeharrak etiko eta legalei sarri muzin eginez. II. Mundu Gerraz geroztik bizi dugun exodo masiboenaz galdetu diogu Agustin Unzurrunzaga migrazioan aditu eta SOS Arrazakeriako kideari.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

Errefuxiatu kopuruagatik larrialdi egoera deklaratu du berriki Mazedoniak, ACNUR eta NBERen arabera, Europar Batasunera bidean aurtan 180.000 errefuxiatu inguru iritsi dira Serbiara eta beste 265.000 Mediterraneoko kostaldera. Egungo egoerari dimentsioa emate aldera, zenbateraino da ezohikoa hau guztia?

Krisi handi baten aurrean gaude. Baina Europaren joera da esatea krisi humanitario baten aurrean gaudela eta laguntza humanitaria ematea dagokiola, eta horri gehitu beharko litzaioke betebeharrak legala ere baduela, Europak akordio ugari dituelako sinatuak eta onartuak nazioartean. Konpromisoak hartuak ditu Giza Eskubideen Deklarazioan, 1951ko Genevako akordioan... nazioarteko asiloa eta babes sistemari lotuta, eta askotan ez ditu betetzen.

Europar Batasunak Dublin II arautegia darabil, baina ez du asiloa emateko sistema baturik eta hori arazo potoloa da. Aspalditik salatu dugu Dublin II sistema, ez duelako jendearen borondatea errespetatzen: giza eskubideen aldarrikapenak dio norberak eskubidea duela asiloa non eskatu erabakitzeko, baina sistema bateraturik gabe, aipaturiko arautegiaren barruan errefuxiatuak asiloa eskatzen du iristen den herrialdean, eta adibidez Greziara iristen bada han geratu eta itxaron beharko du, jakinik administrazio kontuak urtetan luzatzen direla, eta herrialde bakoitzeko prozedurak oso ezberdinak direla epetan eta erabakitan

(baiezkoa edo ezezkoa ebazteko orduan, esaterako). Egun, iristen denak ez du segurtasun juridikorik EB barruko herrialde guztietan berdin tratatua izango dela bermatzen dionik.

Hain juxtu, Merkelek eta Hollandek politika bateratua aldarrikatu dute. Arduraz, errefuxiatuak birkokatze kuoten beharraz... ere mintzatu dira, baina joan den apirilean Mediterraneon 1.400 migratzaile hil ostean gauza berdinak

entzun genizkien agintariei, eta ondoren adostu zutena ordea mugen kontrola areagotzea eta pertsonen mugikortasunari trabak gehitzea izan zen; herrialde bakoitzak hartu beharreko pertsonen kuotak ezartzea ere ez zuten lortu azkenean.

Bai, urteak daramatzate berdina errepikatzen. François Hollanderen 2009ko artikulua bat irakurri dut eta asilo sistema bateratua, segurtasun juridikoa eta abar eska-

tzen zituen, baina presidentetzara iritsi ostean ez du ezertxo ere egin. Horrelako krisi bat bizi behar izan dugu berriz ere urak astintzeko. Alemania aztoratu egin da jende gehienak bertan nahi duelako asiloa, eta kezkatuta daudenez badirudi Frantzia eta Alemania inplikatu egin direla eta aurrerapausoak eman daitezkeela.

Krisiari erantzuteko nahikoa aurrerapauso?

Ziurrenik motz geratuko dira, kontuan hartuta erabakiak hartzen hasi direla arazoak eztanda egin duenean, aldeztatik neurriak

“Birkokatzea betearazteko neurriak hartu beharko lirateke, prozesua estatuen borondatearen esku lagatzen denean hauek ez dutelako jendea hartzeko inongo asmorik”



hartu beharrean. Dublin II hankaz gora jarri eta sistema bateratuaren aldeko apustua egin beharko da, eta Europak nola funtzionatzan duen aintzat hartuta, bizpahiru urte iraungo ditu prozesuak.

Erregistro zentroak sortzea nahi dute Merkelek eta Hollandek, "baldintzak betetzen ez dituztenak" euren jatorrizko herrialdeetara lehenbailehen itzultzeko.

Bai, asiloa edo babesa behar dutenen eta gainerakoen artean bereizketa garbia egin nahi dute, eta bertako biztanleriaren zati baten aurrean ondo geratzeko diskurtsoa da hori, "babesa behar dutenak hartuko ditugu, gainerakoei egurr", baina praktikan sarri hori ez da batere erraza. Gerran dagoen leku batetik badator argiagoa da, baina miserian gelditu den alboko herrialderen batetik badator zer?

Bidezkoa da bereizketa hori egitea?

Ez. Jendeak emigratzen du jaioterrian gaizki dagoelako. Batzuetan gerra dagoelako, bestetan premia larrian delako, etorkizunik ez duelako... Faktore ugariaren nahasketa izan ohi da eta bereizketa egitea antzua da, nahiz eta egia den legearen arabera nazioarteko asiloa egoera jakin baten barruan eskatu behar dela.

Europako 26 estatutan batetik bestera libre mugitzeko askatasuna zehazten du Schengengo Hitzarmenak. Askatasun hori murriztea aipatu da eta halakorik ukatu egin du Europar Batasunak, baina ez dirudi mugitzeko askatasuna guztientzat berdina denik, muga batzuetan jartzen dituzten trabak ikusita.

Bai, Bulgarian 14 kilometroko harresiak erai-ki dituzte Turkiako mugan, Hungaria horretan ari da... Gauza bat da libre zirkulatzeko aldarrikapen orokorra, eta kapitalak eta merkantziak ez dute horretarako inongo arazorik, baina pertsonei trabak jartzen zaizkie, jaioterriaren arabera. Eta gainera, Europako Batzordeak esan arren Schengengo Hitzarmena ez dela ukituko, aldatzeko presioak daude, Sarkozyren hauteskunde programan, Fronte Nazionalaren eskaeretan, Europako eskuin muturraren aldarrikapenetan...

"Asiloa Europara iristean eskatu orde, zergatik ez eskatu jatorriko herrialdean edo inguruko enbaxadaren batean, Europara modu onean iristeko bidean bizitza arriskuan jarri gabe?"

Hitz egin dezagun egin beharko litzatekeenaz. Errefuxiatuak birkokatze kuotez asko hitz egin da. Nola inplikatu herrialdeak zeregin honetan?

Jendea babestea da abiapuntua. Europako Batzordeak 40.000 lagun Europara berfinkatzeko jarri zituen irizpideak egokiak iruditzen zaizkit; horrekin batera, jendearen borondatea kontuan hartzea ere oso inportantea da. Jakina, 40.000ko kopurua izugarri motz geratzen da gaur egun, eta aurreko

esperientzia ikusita, prozesua estatuen borondatearen esku lagatzen denean hauek ez duteenez jendea hartzeko inongo asmorik, birkokatzea betearazteko neurriak ere hartu beharko lirateke.

Bidean (bereziki Mediterraneoan) heriotzak saihesteko baliabide gehiago jartzea eskatu dute, besteak beste, ACNUR edo Mugarik Gabeko Medikuek.

Hala da. 2013an Italiak Mare Nostrum sistema jarri zuen martxan Mediterraneoan eta bar-



kuek bizitza ugari salbatu zituzten, baina 2014an Mare Nostrum pikutara bidali eta Frontex segurtasun sistemaren baitan Triton jarri zuten indarrean: Tritonek baliabideen erdiarekin egiten du lan eta bere betebeharrak nagusia ez da bizitzak salbatzea, mugak babestea baizik. Diferentzia izugarria da eta hiltzen den jende kopuruan antzematen da hori.

Europar sartzeko bide legalak irekitzea, bide alternatiboak eskaintzea ere aldarrikatu dute.

Asiloa eskatzen da Europara iristean, zergatik ez eskatu alde aurretik abiapuntuko herrialdean edo ingurukoan, Europako (edo europar estaturen bateko) enbaxadan? Hala, asiloa lortu eta bideak zabalduko lirateke Europara modu onean iristeko, lehenengo bizitza arriskuan jarri behar izan gabe.

Askoren ustez, Afganistan, Irak, Siria, Libia, Yemen... bezalako herrialdeak egonkortzera baliabideak bideratu beharko litzuke Europak, jakinik hein batean Europaren esku-hartzearen ondorioa dela herrialde horietan bizi duten egoera.

Europa ez da herrialde horietan dauden kontrasteen guztien erantzule bakarra, baina egia da izugarritzko eragina izan duela Europaren jarreraren praktikoak. Libiakoa izugarria izan da, aurretik Irakekoa... Mendebaldeak itxurazko demokraziaren teoria argudiatu zuen Iraken, Libian sartzeko berriz arrazoi humanitarioak eman zituen, baina Kadafi kendu eta estatua desegin ostean ez du inongo irtenbiderik eskaini, ez daki zer egin. Egindakoa desastre bat izan da eta gertaturikoan erantzukizuna dauka Europak. Horregatik, Sirian, Libian eta beste hainbat lekutan irtenbidea bilatzeko inplikatu egin beharko litzateke, nahiz eta konponbidea oso zaila den.

AEBen erantzukizuna ere ez da samurra. Zein neurritan inplikatu beharko lirateke estatubatuarrek, errefuxiatuen krisiari erantzuteko orduan?

Maila berean. Kontua da asilo eskatzaileen zatia urrun geratzen direla AEBak. Dena den, Patrick Weil politikariak nazioarteko konfrentzia bat proposatu du errefuxiatuen aferrari irtenbidea aurkitzeko, ez bakarrik Europar, baita beste estatu batzuk inplikatur ere, bereziki AEBak.

Agustin Unzurrunzagaren esanetan, errefuxiatuen eta gainerakoen arteko bereizketa egitea "antzia da: jendeak emigratzen du jaioterrian gaizki dagoelako. Batzuetan gerra dagoelako, bestetan premia larrian delako, etorkizunik ez duelako... Faktore ugariaren nahasketa da". Lehenengo orriko argazkian, errefuxiatu siriarrek Mazedoniako mugan.

Xenofobia

"Efektua bikoitza da eta Alemanian ikusten ari gara. Batetik, neonaziek eta beste

hainbatek erasoak egin dituzte, baina bestetik errefuxiatuei solidaritatea eta elkartzasuna adierazten dieten mugimenduak indartsu ari dira".

Aurrekarietako kasu eginez, zein izan ohi da errefuxiatuen joera, euren herrialdeetako gatazka amaitu ondoren?

Adibide bat jartzearren, Bosniako gerra garaian akordioa egin zuten Europar, jendea birkokatzeko, eta Euskal Herrian ere izan genituen ugari. Urte gutxira, gerra amaitu ostean, gehientsuenak bueltatu egin dira, apenas geratzen den inor hemen. Gerra luze joaten denetan, aurreko gizarteak desegin egiten da, eta hainbatek ez du itzultzeko asmorik izaten, ez zaiolako jaioterrian ezer geratzen. 1936ko Gerran hemen emandako mugimenduak begiratzen baditugu, Irunen erreketek sartu zirenean eta jendea Iparraldera joaten hasi zenean, handik urte batzuetara poliki-poliki etortzen hasi ziren batzuk, beste batzuk Frantzian, Mexikon edo Venezuelan geratu ziren, leku horretan bizitza egina zutelako.

Frantziatik Ingalaterrara hainbatek muga zeharkatu nahi izan duela medio, David Cameron Erresuma Batuko lehen ministroak immigrazio lege berria agindu du irailerako. Zenbait gobernu egoera baliatzen ari al dira, migratzaileen aurka legeak zorrotzeko?

Bai, argi eta garbi, eta herritarren aurrean gainera populismo merkea eginez. Arazoa betikoa da: eskuin muturraren eremuan sartzen banaiz, ni ere eskuin muturtzen naiz, eta hautetskundeetarako errentagarria izan litekeen arren, epe ertain eta luzera porrota izan ohi da. Frantzia ikusi dugu: Sarkozy Fronte Nazionalaren eremuan sartu zen, haien aldarrikapen batzuk bere eginez, baina azkenean espazio horretan Fronte Nazionalek atera da garaile; epe luze eskuin muturra da indartzen dena. Eta jakina, joko politikotik harago, legeak gogortzeak izugarritzko eragin ezkorra du atzeritar guztientzat, eta urte luzez.

Migrazioaren kudeaketa onak onurak ekartzen dizkio gizarte hartzaileari?

Bai, zalantza barik. Azken 200 urteotako migrazio prozesuak aztertzen baditugu, horiek hartu dituzten herrialdeentzat onuragarria izan da epe ertain-luzera. Ezinezkoa da New York, Holandako portuak,artzelona edo Bilbo migrazio barik irudikatzea. Une honetan, ia 1.000 milioi pertsona daude munduan migratzen, gehienak estatu barruetan (750 milioi); migrazioa beti egon da eta egongo da. ■

‘TRANTSIZIOAK’ ERAKUSKETA

Lau hamarkadako eraldaketak hamaika iruditan

Apal ilunetan gorderik, ARGIAk badu altxor bat urteen poderioz distira gehiago egiten duena. Bere artxibo historikoan azken lau hamarkadako milaka argazki daude “ezkutatuta”, horietako asko argitaragabeak. Orain, horien aukeraketa bat ikusgai jarriko dugu Trantsizioak erakusketaren bidez, gure historia hurbilean izandako eraldaketa sozial eta politikoei begira diezaiegun.

| URKO APAOLAZA AVILA |

1976AN ARGIAren —garai haietan oraindik *Zeruko Argia* zen— irakurleek aldaketa itzela sumatu zuten. Euskal prentsaren dekanok, ordura arteko formatu tabloidea utzi eta

magazine modernoan itxura hartu zuen, Lemoizko zentral nuklearraren obrak erakusten zituen koloretako azal eta guzti. Aldaketa horrek ate bat zabaldtu zuen astekariaren diseinuan eta derrigorrean ekarri zuen argazkiei garrantzi handiagoa ematea. Ordurako, kazetari belaunaldi berria zebilen lanean, dik-



Lemoizko zentral nuklearraren kontrako martxa 70eko hamarkadaren amaieran.

taduraren zentsura gainditu eta puri-purian zeuden gai politikoak eta sozialak espresuki lantzeko prest.

Horrek guztiak azal lezake zergatik den hain aberatsa ARGIAren argazki artxiboa 1976tik aurrera, eta beldurrik gabe esan liteke 70eko eta 80ko hamarkadetako zenbait gaien inguruko ilustrazioak –euskalgintzari dagozkionak esaterako– balio handiko dokumentu historikoak direla.

Trantsizioak erakusketan horien selekzio bat ikusi ahal izango da, 250 argazki inguru. Erakusketa Oñatin zabalduko da irailaren 18an –Argia Egunaren bezperatan– Gaztelekuan, eta Oñatiko memoria historikoari loturiko zenbait argazki ere erakutsiko dira, Euskal Memoria Fundazioaren herriko taldearekin elkarlanean. Horren ondoren beste hainbat tokitara eramango dugu erakusketa, ibiltaria izateko bokazioz jaio baita proiektua.

Eraldaketen ispiluak

“Trantsizioa” hitzak badu esangura jakin bat Espainiako historiografia konbentzionalean, Francoren diktaduratik garai “demokratikora” arteko urteak lirake. Haatik, Euskal Herrian asko dira trantsizio politiko hori amaitu gabe dagoela diotenak. Nolanahi ere, trantsizioaren adiera zabalagoa eta anitzagoa islatu nahi du argazki erakusketaren izenburuak, etengabeko krisi eta eraldaketen artean bizi baikara, izan energiaren arloan edota eskubide zibilen defentsan, eta 2007an leheritutako krisi ekonomikoak are ageriago utzi du trantsizio horien beharra.

Erakusketa hainbat paneletan dago antolatu eta bakoitzean gai zehatz bat aurkezten da, Franco hil osteko urteetatik gaur arte. Ikus ditzakegu, esaterako, desobedientziaren bidean Euskal Herrian eman diren pausoak, lehen intsumituen garaietatik herri harresietara. Edo abortatzeko eskubidearen aldeko lehengo eta oraingo mobilizazioak jarri ditugu parez pare.

Azken batean, aldaketa horiek utzitako arrastoak eta sortutako kontraesanak azaldu nahi dira irudien eta testuen bidez; kasu askotan protagonista izan zirenen esanekin eta astekarian argitaraturiko edukiekin osatuta.

Argazki baten indarra

Maiz, aitaren altzoan kamerari so dagoen hauraren begirada nahikoa izan ohi da albiste baten angelu itsua ikusarazteko, adibidez ikastolen aldeko gose greba baten atzean dagoen sentsazio mutua azaltzeko. Erakusketarako argazkiak aukeratzeko garaian, ahalegin berezia egin dugu irudiak berak transmititzen duenari indarra ematen; izan ofizioz

Argia Eguna'15 Txikitik eragiten

TRANSIZIOAK erakusketak asteburu luze eta oparobati emango dio hasiera Debagoienan, eta irailaren 20an, igandearekin, Oñatin izango da zita nagusia, Argia Egunean. ARGIAk egitaraua osatzen dihardu harpidedun eta eragileekin elkarlanean. Leloa ere badugu: *Txikitik eragiten*.

Txikitasunak lotura handia duelako komunikazio proiektu honen izateko moduarekin eta gurean lantzen ditugun gaiekin, desazkundarekin, eredu jasangarriago batekin, herrietatik sortutako jendarteko mugimenduekin. Txiki asko, txikitik eragiten, bestelako mundu baterantz bidea urratzeko gai garelako. Hori guztia bildu nahi du 2015eko Argia Egunak.

Oñatira joateko deia

Gizarte eragileak jadanik hasi dira Argia Egunera joateko mezua zabaltzen. Francking ez! taldeko Mikel Oteroren esanetan frackingaren kontrako mugimenduak kazetaritzarekin “zor bat” du Euskal Herrian eta “horren barruan ARGIAk sekulako lana egin du informazioa zabaltzen”. Oihana Etxebarrieta Bilgune Feministako kidearen arabera, Bilgunerentzat “ikasi eta irakasteko sare zoragarria da” ARGIA, “gero eta gai zailagoetan ikuspegi feminista txertatzeko deitzen diguzuenez, asko irakurtzea tokatzen zaigulako. Gure aliatu bereziak zarete eta urte luzez horrela izatea espero dugu”.

hartutako bat-bateko eszena, nahiz argazkilaria subjektiboki bilaturiko erretratu artistikoa.

ARGIAren artxiboan dauden argazki gehienak bertako kazetariak, argazkilariek eta kolaboratzaileek ateratakoak dira, beste batzuk enkarguz eginak eta askok jatorri ezezaguna dute, batez ere 70 eta 80ko hamarkadakoek; tartean badaude sekula argitaratu gabeko dokumentu grafikoak. Ahal den neurrian argazkien jatorria eta argazkilarien lana aitortzen da erakusketan.

Testuei dagokienez, hemeroteka lana funtsezkoa izan da argazki-oinan testuingurua ahalik eta modu zehatzenean laburbiltzeko. Zenbait gai jorratzeko garaian, bestalde, oso baliagarriak izan dira hainbat lan erreferentzial, euskararen arloan esaterako Dabid Anauten *Euskararen Kate Hautsiak* liburuan oinarritu da informazio ugari.

Erakusketa honekin Euskal Herriko historiaren azken 40 urteei errepasoa eman nahi izan diegu, aurrez aurre ikus dezagun gure burua ispiluaren aurrean. Hurrengo orrialdean erakusketaren lagin bat aurkitu duzu, zenbait argazki esanguratsurekin. ■

ARGIA ARTXIBOA



AXIER LOPEZ



DANI BLANCO / ARGIA ARTXIBOA



ARGIA ARTXIBOA



ARGIA ARTXIBOA



ARGIA ARTXIBOA



Goitik behera, ezker-eskuin, erakusketako lagin bat: Seaskako gurasoek Baionako katedralean hasitako gose greba (1982); Gasteizko herri harresia (2015); mundu mailako politikariak Aieteko Bake Konferentzian (2011); bortxaketen eta sexu erasoen kontra Errenterian izandako manifestazio jendetsua (1978); Iruñeko medikuntzako ikasleak Espainiako Estatuan istilu ugari sortu zituen greba eta protestekin bat eginik (1987); Askatasunaren Ibilaldiaren zutabeetako bat Arazurira iristen (1977).



**June
Fernández**



KAZETARIA

Doña Sebastiana

DOÑA SEBASTIANAK 63 urte ditu eta Chichicastenango (Guatemala) herrirako batean bizi da. Ez du irakurtzen ez eta idazten ikasi ere, baina lan ugari egiten ditu: medikua, psikologoa, abokatua... Emakumeak defendatzea da bere eginbehar eta bokazio nagusia. Bizitza gogorra izan du, berak dioenez, izugarri pairatu behar izan du gaur egun indarkeria bizi duten emakumeen egoera ulertzeko, eta hala, laguntza egokia eman ahal izateko.

Hamabi urte zituela bere amak mutil batekin ezkontzera behartu zuen. Mutil hori ere behartuta sentitu zen, eta bere haserrea Sebastiana jipoitzen eta umiliatzen bideratu zuen. Hamar urtez bere ama ikustea debekatu zion. Sebastianak hamabi aldiz erditu zuen baina sei haur txiki hil zitzaizkion. Erditu eta hurrengo egunean ere jipoitzen zuen senarrak, edozein aitzakia erabiliz. Edoskitzean haurtxoek beren amaren samina eta haserrea edaten zuten, eta horregatik hiltzen zirela uste du Doña Sebastianak. Orduan senarrak are eta gehiago jipoitzen zuen: ezertarako balio ez zuelakoan, ezta bere haurren bizirau-pena bermatzeko ere.

Chichicastenango askok Doña Sebastiana maite dute, baina bere lanak ere gorrotoak pizten ditu. Berak aspaldi beldurra galdu zuen eta bidegabekeria guztiak salatzen ditu, baita politikarien ustelkeria ere

Emakume taldeetan parte hartzeak bizitza aldatu zion. Han ikasi zuen emakumeek eskubideak dituztela, errespetua merezi dutela. Aktibismoak adorea eman zion bere senarrari aurre egiteko eta beste emakumeak laguntzeko. Bere komunitateko *lideresa* da egun. Bizirauteko ehuntze eta artisau lanak egiten ditu, baina bere alaben laguntzari esker, emakumeekin egoteko denbora ateratzen du. Emakumeen istorioak entzuten ditu, laguntza emozionala ematen die eta aholkularitza ere. Emakumea jipoitua izan denean Doña Sebastianak erruda usaindun edo

bortusai landarea erabiltzen du beldurra eta haserrea baretzeko.

Batzuetan senarrekin bitartekaritza lanak egiten ditu. Gizonak ez badu ulertzen tratatu txarrak onartezinak direla, hurrengo pausoa epaitegietara jotzea da. Emakumeek ez dute abokatu bat ordaintzeko dirurik, orduan Doña Sebastiana da Giza Eskubideen Gortean doako defentsa eskatzen duena.

Chichicastenango askok maite dute Doña Sebastiana, baina bere lanak gorrotoak ere pizten ditu. Berak aspaldi beldurra galdu zuen eta bidegabekeria guztiak salatzen ditu, baita politikarien ustelkeria ere. Hori dela eta, herriko gizon botere-tsuek Sebastiana lintxatuko duten mehatxua zabaldu dute.

Erraza liteke Doña Sebastianaren edo Guatemalako beste *lideresen* istorioak entzun eta erruki sentitzea. Baina euren ez dute beren burua biktimak bezala aurkezten, bizirik atera diren *sobrevivientes* bezala baizik. Hori da Ameriketako feministek nahiago duten kontzeptua. Gure artean, ordea, ez da ez hori ezta *lideresa* kontzeptua erabiltzen.

Gure artean indarkeria matxista bizi duten emakumeen biktimizazioa nabaritzen da eta salaketa judizialak dirudi irtenbide bakarra. Arlo instituzionalean aurrea pauso ugari eman dira, baina arlo komunitarioan oso gutxi. Biktimak (izen hori erabiltzen dugu) gizarte zerbitzuen, terapia taldeen edota zerbitzu juridikoen erabiltzaile soilak dira. Guatemalako hainbat erakundek komunitateetan rol nabarmena daukaten emakumei prestakuntza ematen diete, euren auzoetan erreferente bilakatu daitezkeen eta tratatu txar edo diskriminazio egoerak identifikatu eta bideratzeko gai izan daitezkeen. Lan hori eurentzat terapeutikoa ere bada: pertsona indartsuak eta baliogarriak sentitzen dira. Esan bezala, erraza liteke: "Gizajoak!" pentsatzea. Baina errukia sentitu ordez, euskaldunok badaukagu euren esperientzietatik zer ikasi eta horrela, bide batez, kolonialismoak eragin duen botere harremana apur bat irauli. ■



Inma Errea

KAZETARIA ETA ITZULTZAILEA ♦



DANI BLANCO

Arrosatik gorrira

ARROSA KOLOREKO MUNDUA, hori agintzen zaie neskei txikitatik. Tonu arrosetan blai datoz jostailu-iragarkiak, jantzi eta osagarriak, eskola-materialak...

Ez dut gogoan arrosa kolorea bereziki gustuko izatea haurtzaroan, ez nik, ez inguruko neskek, nahiz bagenituen neska gisa bereizten gintuzten ezaugarriak: parpailez eta loredun estanpatuez betetako soinekoak, printzesen ipuinak, ezkongaienak ziruditen jaunartze-jantziak...

Baina arrosak koska bat gorago egin zuen, eta, neska txikien kolore tradizionala izateari utzi gabe –mutiko txikien urdin argiari kontrajarrita–, emakume-kolorea bilakatu zen (andreak eta haurtxoak nahita pareko?). Orain, neskatala eta emakume askok arrosa biziki maite dute, eta mutiko askok biziki arbuia, neskatalen kolorea delako! Eta jende askok uste du jaiotzetikoak direla arrosarekiko zale-tasuna eta gorrotoa.

Arrosa kolorea emakumezkotasunaren ikur nagusietako bat izaki, ez da bakarra. Neskatalak haztean, beste baliabide batzuk dituzte eskura emakume agertzeko: jantzi iradokitzaileak, orrazkera ezin zaindua-goak, takoiak, makillajea... Azkenotan, industriaren saltzeko grinak mutilentzako ere asmatu ditu halako-

ak, baina, gauzak zer diren, beti bezain zorrotz bereizten ditu gizonen eta emakumeen estetikak. Emakumeak, emakume, eta gizonak, gizon. Eta aukera sexual desberdinaren bat dutenek ere estereotipo horietara beraietara jo behar, beren hobespenak aldarrikatuko badituzte: genero-erolek ez dute barkatzen.

Emakume askori, ordea, arrosa gorri bihurtzen zaie, beren odolaren gorriaz tindatzen zaie agindu zieten arrosa koloreko bizitza. Maiz, bizitza izateari utzi, eta heriotzarik beltzena bilakatzen zaie.

Jende asko urduritzen da, entzuten duenean, arrosa koloreko lilurari tinko eutsita gizonen ikuspegia gizartean nagusi bihurtzen duen bereizketa sexistak bultzatzen duela genero-indarkeria. Jende askok –emakume zein gizon– gustuko ditu amets erromantikoak eta arrosaz margotutako errealtatea, ez die uko egin

nahi halakoei, eta ez du ikusi nahi zer dagoen egiatan bortizkeria sexistaren atzean. Baina honezkero premiazkoa da: bortxaketa edo hilketa bat dagoen bakoitzean nola den posible galdetzen ibili orde, gizarte honetako sexismoa desmuntatu behar dugu, atrezzo (arrosa) eta guzti, emakumeak arrosatik gorrira darmatzan bidea eteteko. ■

Jende askok –emakume zein gizon– gustuko ditu amets erromantikoak eta arrosaz margotutako errealtatea, ez die uko egin nahi halakoei, eta ez du ikusi nahi zer dagoen egiatan bortizkeria sexistaren atzean

JOSU SANTESTEBAN



Edu Zelaieta



IDAZLEA

Lehorretik

LEHORRETIK ari da begiralea, haurrek igerian ikas dezaten. Igerian irakasteko metodo bitxia. Busti gabe. Pedagogia ezaguna dugu, edonola ere: egizu nik esaten dudana, ez egiten dudana. Historikoki apez frankok praktikatu izan dute halako ikasbidea, bai eta (bestelako) agintari batzuek ere, bereziki botere-gune nagusien inguruan aritu direnek.

Lehorrean egin du saio guztia begiraleak, mahuka motzeko kamiseta bat jantzia duela. Eta hala jardun du egunero, ikastaroa bukatu arte. Busti gabe, instrukzioak eta aginduak ematen ozenki, tarteka zakar

antzean, soinean daraman kamiseta bereizgarri: bainujantzia ez dagoen pertsona bakarra bera da. Gogoan hartu, baina, ez dela bereizgarri bakarra: igeri egiten ez duen bakarra igerian irakasten duen begiralea da. Lehor hasi, lehor jardun, lehor bukatu.

Lehorretik abiatu da ikasturte berria, Kataluniako hauteskundeak atarian daudela. Izan ere, Madrilen, igeriketa ikastaroan bezala, lehorren legea da nagusi. Ikuskituz dago orain zein jarrera hartuko duten ur mugituetan sartuko diren boto-emaelek, eta nori egingen dioten kasu ez itotzeko. ■

Joxe Iriarte, *Bikila*

♦ IDAZLEA

Argi-itzalak

UZTAILEAN bete behar izan banu orri hau, ezbairik gabe, Greziak bizi duen egoera deskribatzera mugatuko nintzakeen. Irailean balitz, agian, tragedia guztietako iheslarien hilobia bihurtu zaigun Mediterraneoari buruz idatziko nuke. Alabaina, abuztuan, nire gogoa Pirinioetako gailurretatik ezin jaitsiz dabil, eta altura horietan, ezin naiz zentratu gai bakar batean.

Esate baterako, begiak Grezian jartzen ditudanean, erreferendumaren osteko giro epikoa tragedia bihurtu izanak penatzen nau. Eta penagarria bada Grezian gertatutakoa, penagarriagoa, da ezker europarraren (eta gu horren parte gara) portaera: moralki solidarioa eta praktikoki alferrikakoa, lelotua, desmobilizatua, ezin ulertuzkoa da Greziako bataila. Espainiako Estatuan 1936koa bezala, dimentsio europarra eta historia-koa duela.

Gurean, intentzio oneko lagun batzuen ezkerren batasunaren aldeko aldarriak eman zidan pozak zer gutxi iraun duen zapuzten nau. Gaur gaurkoz ez omen daude sustraiak eta ondorengo zutabeak finkatuak. Noiz ohartuko gara ezker eraldatzailearen batasuna inoiz baino garrantzitsuago dugula?

Gurean, intentzio oneko lagun batzuen ezkerren batasunaren aldeko aldarriak eman zidan pozak zer gutxi iraun duen zapuzten nau. Gaur gaurkoz ez omen daude sustraiak eta ondorengo zutabeak finkatuak. Noiz ohartuko gara ezker eraldatzailearen batasuna inoiz baino garrantzitsuago dugula?

Azken hauteskundeetan EH Bilduk Gipuzkoan izan duen atzerakada esplikatzeke, gauza batzuetan azkarregi joan omen garena azpimarratu egin da. Pedagogia kontua bada, ados. Baina aldi berean argi eta garbi adierazi behar da, gauza gehienetan motelegi goazela. Aldaketa klimatikoari aurre egiteko erabakiak hartzerakoan, esate baterako, Euskal Herria dugu biztanleriaren batz besteko karbono dioxidoaren sortzaile handienetakoak.

Arazo horri aurre egiteko, Barack Obama behingoz prest omen dago karbono dioxidoa eragiten duten energia motak gutxitzeko, baina indar faktiko guztiak (sektore horren lobbiak) aurka azaldu zaizkio. Ezer gutxi, zoritxarrez. Arre (kapitalismoa sostengatu) eta so (energia kutsatzaileei aurre egitea) alde berean, ezinezkoa baita. Izan ere, Naomi Kleinek dioen bezala, aldaketa klimatikoaren errudun nagusia ez da karbono dioxido kopurua —hori ondorioa da— sistema kapitalista baizik. Eta ez dut zalantzarik bere kabuz ez duela aldatuko mundua amildegira daramatzan norabidea.

Eta guzti horren kontra egiteko beranduegi, agian ez, baina bai atzeratuegi gabiltzala ezkerren birmoldaketan eta indar metaketan, bai gurean zein Europa osoan: “Denok hala inor ez, bakarka ezin da”. ■

gure artean 
euskaraz

Euskara airean dago: egunerokoaren txoko guztietara zabaldu da, eta nahi duguna adierazteko eta lortzeko erabil dezakegu. Egin dezagun hegaz euskararekin eta euskaraz lagunekin, kideekin, neska-mutil berezi horrekin... noranahi heltzeko. Geure modura.



www.bizkaia.net



«Musikarik onena zineman egiten da gaur egun»

Udaberrian bakarkako zortzigarren diskoa aurkeztu zuen, eta udazkenean entzuleek zuzenean ikusteko aukera izango dute. Sortzaile emankorra izanagatik ere, musikari gisa askoz ezagunagoa da. Astebururo milaka lagun enaurrean aritzen den Fito & Fitipaldis taldeko kideak ganbera musikarako piezak konposatzen ditu.

| JONI UBEDA |

Argazkiak: Dani Blanco

OSO KONTZERTU GUTXI eskaintzen ditu bere diskoekin. Donostiako Lugaritz kultura etxean eskaini zuen emanaldi bakan horietako bat, 2009an. Han bertan elkarriketatu dugu, sargori zen udako goiz batean.

9 Ganbera pieza diskoa jarri eta film areto batean ikusten dut nire burua, garai bateko film baten aurrean.

Musika instrumentala entzuteko ohiturarik ez dago, normalean. Eta orduan horrelakoetan musika estilo hori berehala zinemarekin lotzeko joera izaten da. Bestalde, egia da film asko ikusten ditudala. Musikarik onena zineman egiten da gaur egun.

Film bateko eszenak, elkarriketak... zeini erreparatzen diozun asma dezauket. Soinu bandan erreparatzea fijasioa izatera iritsi al daiteke?

Bere osotasunean ikusteko joera izaten dut. Filma oso ona ez denean, argazkian eta bestelakoetan erreparatzen hasten zarela esaten da. Filma ona denean ez diozu alor zehatzei erreparatzen. Soinu bandari, noski, musikari eta profesional bezala erreparatzen diot. Baina normalean literaturan, zineman... irakurlearen edota ikuslearen papera hartzen ahalegintzen naiz.

Zinema lan ildo interesgarria izan daiteke zuretzat.

Bai, noski.

Lan egiteko abiapuntua, ordea, oso desberdina litzateke.

Halaxe da. Nire disko bat egiteko garaian, etxean abiapuntu zehatzik gabe trantzean sar-

tzen naiz. Enkargu edo proposamen bat jasotzean, hainbat baldintza bete behar dira. Horrelakoetan abiapuntua zein den argi izaten da, beraz, lan egiteko garaian oso desberdina da.

Zure emozioen isla izatera irits daiteke **9 Ganbera pieza** disko berria?

Obra bakoitzaren atzetik autorea dago, saihestezina da hori. Rafa Berrio kantariak ezin hobeto deskribatu zuen hori. Bere hitzak nire eginez, disko hau hein handi batean fikzio autobiografikoa da.

Elkarren artean oso ezberdinak diren diskoak egiten dituzu.

Nire obran pentsatzen jartzen naiz, nire diskografian, eta lehen diskotik azken diskora arte ildo bat badagoela iruditzen zait. Egia da, lehen diskoa eta azkena oso ezberdinak dira, baina guztietan ezaugarri batzuk errepikatzen dira: melodiaren protagonismoa hor egon da beti, esaterako.

Eta bestetik disko bakoitzean kantuen artean erritmo eta harmonia aldaketa ezberdinak aurki daitezke. Ez ditut disko homogeneoak gustuko.

Zortzi disko egin dituzu baina interprete bezala ezagunagoa zara. Disko berriak kontrazalean "Joserra Senperenak sortua" dio. Zehaztea falta da disko honetako musikari guztien arregloak zerorrek egin dituzula.

Lehen diskoetan abiapuntua neronek jartzen nuen, eta musikari bakoitzak inprobisazioaren bitartez bere aletxoak jartzen zuen. Azken bi diskoetan musikariei partiturak eman eta

"Disko hau fikzio autobiografikoa da hein batean"





Azaroaren 20an Donostiako Victoria Eugenia eta abenduaren 20an Tolosako Topic aretoan aurkeztuko du disko berria zuzenean Joserra Senperenak.

hori jo dute. Musika klasikoan ohikoa da hori.

Musikari guztien lana zerorrek sortu eta partituta pasa zenuen. Burutik paperera, pianoa tarteko?

Orain arte, disko guztietan eta jasotako enkargu guztietan, pianoa gertu izan dut beti. Disko honetan nire pianista izaera alde batera uzten ahalegindu naiz. Eta etxeko beste txoko batean paperaren aurrean jarri eta melodiak trantzean sortzen saiatzen nintzen. Behin melodia sortuta, pieza garatzen hasten nintzen: harmonizazioa, instrumentazioa...

Diskoaren aurkezpen ekitaldian Paul McCartneyk Beatles taldearen antologian kontatzen zuena aipagai izan nuen. Egun batean *Yesterday* kantuari melodia buruan zuela esnatu zen. Erantsi zien harmonia eta Georges Martin ekoizleak egindako hari laukotearen moldaketa ondoren iritsi ziren.

Melodiak sortzeko berrikuntza hori dela eta, disko kuttuna izango al da zure diskografian?

Normala denez, nire azken disko hau onena da niretzat. Gehiago identifikatzen naiz disko honekin. Ausarta izan naizen irudipena izan dezaket, baina disko bat egin dudana aldiro sentipen bertsua izan dut. Aurrekoa bere garaian ere ausartena iruditu zitzaidan.

Sorkuntzaz eta interpretazioaz, eskarmentu handiko musikari baten eta anbizioa duen gazteago baten arteko solasaldi interesgarri bat badago *Treme* musika telesailan. Zaharrenak dio arrakasta izateko abestu eta sortu egin behar duela. Gazteak sortzea zein zaila den erantzuten dio. Eta zaharrak berehala erantzun: "Horrexegatik dago mundua interpreteez bete".

Amy Winehouse kantarian oinarrituriko *Amy* film dokumentala ikusi berritan, bere adierazpen bat aipatu nahi dut: hark zioenez, sorkuntzari ekin zion buruan zuena ez zuelako beste inon topatzen.

Nik neuk, hogeitaz urte nituenean, egin nezakeen musika oso txarra izan zitekeela pentsatzen nuen. 35 urterekin edo, Winehousek dioen antzeko zerbait burutik pasa zitzaidan. Eta horrela hasi nintzen, sorkuntzan. Beste artista edo taldeentzat lan egiten duen musikariaren ogibidea polita da, jarraituko dut hori egiten. Baina sorkuntzarik gabe, hankamotz sentituko nintzateke.

Fito & Fitipaldisen entzuleentzat harrigarria izango da taldeko pianistak ganbara piezak sortzen dituela jakitea.

Ulertzen dut hori. Nire ama hizkuntza pop musika da, maiz jo izan dut pop musikara eta horrela egingo dut etorkizunean. Errazen egiten zaidan estiloa da. Baina gaur egun musika garaikidea edo klasikoa buruan dut eta gainera musika hori grabatzeko aukera daukat.

Goazen hasierara, egin beharreko lehen galderara. Noiz hasi zinen *9 ganbera pieza* sortzen?

10 Trio Piano, Biolin eta Akordeoirako aurreko diskoarekin lortu nuen emaitzarekin pozik geratu nintzen. Lan berrirako denbora behar nuen, ezer baino lehen. Hiruzpalau hila-

bete jarraian niretzat hartu nituenean *9 ganbera pieza* sortzen hasi nintzen. Orkestra handi baterako zerbait idazteko gogoia banuen, eta hortik abiatu nintzen. Baina arrazoi ezberdina tarteko, orkestra lan bat aurrera eramatea oso zaila izango zela eta, talde txikiago baterako konposaketa lanari ekin nion.

Industria dagoen moduan egonda, zein balio du zuretzat disko bat egiteak?

"Nire ama hizkuntza pop musika da, baina gaur egun musika garaikidea edo klasikoa buruan dut"

Nire belaunaldiko gehienek bezalaxe, nire lana formatu fisiko batean ikusi behar dut. Gaur egun izango dira musika hori zabaltzeko eta ezagutarazteko moduak, baina neu oraindik nire lana disko batean ikusi behar dudan horietakoa naiz. Jakin badakit disko hauek ez direla asko saltzen, baina Elkarrek apustua egin du eta alde horretatik zorionekoa naiz.

“Melodiak protagonismoa izan du beti nire diskoetan, lehen lana eta azken hau oso ezberdinak diren arren”

Zuzeneko gutxi eskaintzen dituzu. Sonic Youth-eko Kim Gordonek bere biografian dioena oso baliagarria da zure diskorako ere: berak dioenez, oholtza beste inon topatu ezin daitekeen edo beste inon espresatu ezin daitekeen horrekin bete behar den espazioa da.

Zuzenekoa musikan nabarmendu behar den beste alor garrantzitsu bat da. Diskoak sor-kuntza lanaren ondorio dira. Zuzenekoa errepikatuko ez den une hori da. Oso zaila da zuzeneko on bat egitea. Normalean arazo tekniko asko izaten da, eta beharbada egun horretan musikaria burukominez igotzen da taula gainera.

Ez da gehienetan gertatzen, baina den-dena alde dagoenean, zuzenean sortzen den energia kolektibo hori sentitzea magikoa izatera irits daiteke.

“Nire lana formatu fisikoan ikusi behar dut, nahiz eta badakidan disko hauek ez direla asko saltzen”

Oholtza zure musikarekin bete daiteke, beraz. Hori espero dut. Diskoa atera eta berehala zuzenekoak eskaintzeko asmoa genuen, baina udazkenerako utzi dugu. *9 ganbera pieza* Donostiako Victoria Eugenia eta Tolosako Topic aretoan aurkeztuko dugu, azaroaren 20an eta abenduaren 18an hurrenez hurren.

Zinemaz hizketan hasi gara, eta aurtengo Donostiako Zinemaldian zure musika entzuteko aukera izango da.

Halaxe da. Josu Martinezen *Gure Sor Lekua*ren bila eskainiko dute. Euskaraz egindako lehen luzemetraiari buruzko dokumentala da. ■

EUSKAL OROIGARRIA
MAKILA
 eskaintza berezia

*Opari berezietarako
 Pertsonalizatuak
 Prezio aukera desberdinak
 Iñaki Alberdik eginak*


argia

Eskaerak:
 Zirkuitu Ibilbidea, 2 - Industrialdea, 15
 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
 ☎ 943 371 545 - denda@argia.eus
www.argia.eus/denda/makilak

Haur literatura

Errotondan bueltaka
Leire Bilbao
Ilustrazioak: Eider Eibar

Elkar, 2015



Fantasia murgilduta

EGOERA SINPLE eta arrunt batetik abiatuta Leire Bilbao obra irudimentsu eta fantastikoa aurkezten digu; errealitate kutsua du hasieran, Urko eskolara joateko prestatzen denean, berandu ibili eta txiza egin barik autobusera igotzen denean. Horixe dugu ondorengo gertakari guztien abiapuntua eta arrazoia. Urkok, autobusean, gero eta txizagura handiagoa du eta errotonda baten ondoan, semaforoa gorri jarrita, jaitsi egiten da une batez txiza egiteko. Jakina, autobusak ihes egingo dio eta mutikoa errotonda barruan geratuko da, lurralde aparte batean, miresgarrian, motxilan daraman *Alizia berrialde miresgarrian* liburuaren antzeko egoera batean.

Nonsense-a, edo zentzugabea dugu Lewis Carrollen nobelaren ezaugarri nagusi, eta antzekoa da Leire Bilbaoaren ipuin hau; etengabe errotondan zuloak egiten dituen satorren atzetik abiatuta hainbat pertsonaia eta egoera xeble eza gututuko ditugu. Bonbillaz betetako oreina, semaforoko gizontxoak... edo hitz egiten duen harria:

“Aizu, badakit buru gogorra dudala... baina ez dut zure hanketako usaina zertan jasan –esan du sudurra itxita duenaren ahotsarekin.

–Hara! Falta zitzaidan bakarra! Berbetan dakien harri bat –esan du oiheri harritu batekin.

–Ni ez naiz harri bat. Ni Harry naiz –esan du irmo”.

Zentzugabea izateak badu umoretik ere zerbait, xeble baina Urkori gertatzen zaiona, xeble break

aurkitzen dituen lagunak eta xeble break haien arteko elkarrizketak.

Kontakizuna gertakariz, kapitulu laburrez osaturik egoteak laguntzen du irakurketan, handik eta hemendik pikatzen ari den pertsona dugu irakurlea, eta denbora pasaren sentsazioa astiro gertatzen bada ere, egunak aurrera egiten du.

Autobusa bueltan, errotondan dagoela... “Andereño Mirenek nigan erreparatu du, edo hori iruditu zait behintzat, bere aurpegi izutua ikustean. (...)

–Txizalarri nintzen, andereño. Eta ezin izan diot barrua husteko premiari eutsi.

–Azkar, sartu zaitez barrura! Zure amak jakiten badu! –esan du-. Ez, hobe jakiten ez badu –gehitze-ko gero”.

Ikusten den bezala, errealitate gordinena fantasia handienarekin batera agertzen dira kontakizun entretenigarri eta atsegin honetan. Eta tonu hori Eider Eibarren irudietan ere islaturik dugu; kolore bizi, ikuspegi ezberdin, neurri eta forma diferentek, kontakizunaren haria osatuz eta aberastuz.

Errotondan bueltaka liburuko orrietan murgiltzen den irakurlea, untxiaren atzetik zihoan neskatoaren antzera, mundu fantastikoan murgilduko da harik eta Tiranosaurioa, barka autobusa, agertu arte; gure errealitatera itzuli arte. ■

Xabier Etxaniz Erle



Liburu azoka

Donostian, irailaren 4tik 20ra Gipuzkoa plazan.

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!



Xorinoak Kaloian
Xorinoak Kaloian
Autoekoizpena, 2015

Txio basatiak

XORIÑOAK KALOIAN Iruñeko talde gazteak lehen diskoa kaleratu du. Eneko, Mikel, Julen eta Iñaki taldekideak txikitatik dira lagunak. Xorinoak Kaloian sortu aurretik, musikaren munduan, euskal folklorea eta beste hainbat bide jorratu zituzten, eta metalak batu ditu, metal kutsuko doinuak jotzeko elkartu dira. *Xorinoak kaloian* XVIII. mendeko poema anonimoa da, zubereraz idatzia.

Gitarraren riff eta punteo bortitzak eta rock doinu gogorak entzun daitezke haien kantuetan, erritmo biziak eta astunak. Indar handiz jotzen eta kantatzen dute, beren musika tresnak oso ongi erabiltzen dituzte eta kantuen leloak ongi zaintzen dituzte.

Hitzetan, kritika eta salaketa ere gordin egiten dute, txorakeriarik gabe. Hainbat gai dituzte hizpide. Besteak beste: musikaren industria, Euskal Herriaren erabakitzeko eskubidea, duintasuna, zapalkuntza, justizia eza, agintariak, boterea eta esnatzeko eta altxatzeko beharra.

Kantuak entzunez gero, besteak beste, Black Sabbath talde mitikoa eta 90eko hamarkadako talde batzuk atsegin dituztela sumatzen da. Doinu gogorak eta astunak jotzen dituzten zenbait talde, eta beste batzuk ere bai: Rage Against The Machine, Pantera, Slipknot, Limp Bizkit, Korn, Dut, Negu Gorriak eta Berri Txarrak taldearen lehen diskoak.

Berrizko (Bizkaia) Lorentzo Records estudioan grabatu dute diskoa, Aitor Ariño teknikariarekin. Denak batera joz, eta hori nabari da kantuak entzutean, doinu trinkoa ederki gauzatu baitute, doinu gordina, basatia eta potoloa.



Metal kutsuko doinuak eskaintzen ditu Iruñeko taldeak lehen diskoan.

Xorinoak Kaloian taldeko kideek beraiek sortu dituzte diskoko zortzi kantuen musika eta hitzak, *Gisbertaren Balada* eta *Teknokratak eta Langileak* kantuen hitzak izan ezik. *Gisbertaren Balada* poema originala portugesez idatzi zuen Pedro Abrunhosak eta euskarazko itzulpena Joxemari Sestorainek egin du, Txantreako Euskaldunon Biltoki elkarteak osatutako *Hitzak bide, bizia xede* (Pamiela, 2012) bildumarako. *Teknokratak eta Langileak* berriz, Hedoi Etxartek idatzitako *Sinplistikak* (Susa, 2012) poema liburutik hartu dute.

Ez dute ezer berririk asmatu, baina haize berri bat ekarri dute doinu gogorren eta astunen mundura. Egia esan, euskaraz kantatzen duten mota horretako talde asko ez daude.

Musikari gazteak dira eta ilusio, kemen eta grina handiz ari dira. Beren egitasmoan sinesten dute, eta kantuak sortzen jarraitzeko eta jendaurreko emandalak egiteko gogotsu daude, kaiolatik ihes egin nahi duten txoriak bezala. ■

Joxi Ubeda

Egin ditzagun film kaxkarrak!

SHARKNADO, *Mega Shark vs Mecha Shark*, *Abraham Lincoln vs. Zombies*, *Mega Python vs. Gatoroid*, *Crocosaurus*... Ziur azkenaldian eta behin baino gehiagotan entzun dituzula izenburu xeblebre hauek. Interneten gora eta behera dabilta pelikulak eta bertako trailer eta bideoak sare sozialen bitartez, izugarri biralizatzen dira. Jakin, zentzugabeko izenburu horien atzean izen bat dagoela: The Asylum.

Azken urteotan, Hollywood-etik etengabe bonbardatzen gaituzte, remake, reboot, prekuela eta originaltasun falta larria duten ehunka ekoizpenekin. Baina, The Asylumek aireratzten dituen filmekin konparatuz gero, sormenaren gailurrak dirudite.

Eta zer da zehazki The Asylum? Ekoizpen eta banaketa lanak egiten dituen konpainia zinematografiko amerikar bat, ezaugarri nagusi batzuk dituen: aurrekontu eskaseko filmak direla, aurretik existitzen diren hainbat blockbusteren plagio parodikoak, zuzenean DVD/Blu-ray merkatura irteten diren fikzioak. Harrigarria dirudien arren, gehienetan oso errentagarriak izaten dira, jatorrizkoak zinema aretoetan estreinatu baino lehenago aireratzten baitituzte, denborarekor guztiak hautsiz, filmen kopiak (*Mockbuster* deiturikoak). *Pacific Rim* iragarri zutenean adibidez, *Atlantic Rim* errodatu zuten segituan. Gehienak lau hilabeteetan errodatu dira.

Merkezurreko eta gaizki eginiko efektu berezi horiei gehitu behar zaizkie azken-lerroko aktoreen zerrenda kaskarra, edo aktore ezagunen senideak. Ez dakit-noren anaiaren lehengusua, beste horren semearen osaba eta abar. 1980ko eta 90eko hamarkadetan telesail arraroetan irtendakoek ere badute lekua fikzio hauetan: Power Rangersen lan egindakoek, adibidez edo ostrazismoan galdurik dabiltzan beste batzuk, Steve Urkel (Jaleel White) besteak beste.

Eta nondik dator arrakasta? Konpainia 1997 urtean sortu zen eta hasieran beldurrezko filmak egiten zituzten batik bat. Baina konpetentzia zela eta, 2005. urtean hasi ziren joeraz aldatzen. Urte horretan Ste-

ven Spielberg eta Peter Jackson zuzendariek, *King Kong* eta *The War of the worlds* filmak estreinatu zituzten hurrenez hurren. Nola ez, Asylumekeok H. G. Wells' *War of the Worlds* eta *King of the Lost World* ekarri zituzten.

Hortik aurrerakoa, parranda galanta! 2006. urtean, *The Da Vinci Treasure*, *Snakes on the Train* eta *Pirates of Treasure Island* (*The Da Vinci Code*, *Snakes On a Plain* eta *Pirates of Caribbean*en bertsioak noski); 2007an, *Transformers* eta abar. Esan beharrik ez dago, nabarmena baita, filmak oso txarrak direla, baina lagunartean barre batzuk egiteko paregabeak.

Honi lotuta bada beste kontzeptu bitxi bat, Hollywood aldean azken urteotan geroz eta gehiago zabaltzen ari dena: *high concept* delakoa. Paperean tontakeriak diruditen filmak, baina sekulako arrakasta eta diru sarrera ikaragarriak dituztenak. The Asylumen kasuaren antzera, ezinbestekoa, film horren premisa, esaldi bakarrean kontatzeko modukoa izatea. Tontakeria? Ala jeinutasun hutsa? Mota honetako filmen adibide bat lehen aipaturiko *Snakes On a Plane* da: hegazkin bat suzez beterik. Hain erraz laburbildu daiteke, filmaren izenburua bera- rekin jakin baitezakegu

zeri buruzkoa den. Arrakasta izan dezan, saihestezinak diren ezinbesteko hiru baldintza bete behar dira: filmak promozio bortitza eduki behar du, ahalik eta merchandising gehiena saldu eta batez ere, nerabeen artean arrakasta duen aktore lirain eta eder bat tartean sartu. *Interpretazioaren prodijio* hutsak diren, Taylor Lautner, Kristen Stewart ala Zac Efron, adibidez.

Beraz badakizue, ez galdu denborarik gidoiarekin. Filma mundu guztira zabaltzeko Weinstein bezalako tipo bat kontratatu, aktore ezagun eta lirain bat aukeratu (ona ala txarra, berdin dio); kamiseta eta panpina bilduma zabala sortu eta aberastera! Oraintxe okurritu zaidan bat: *Sagardorik gabeko sagardotegi batean, bi astez harrapaturik geratzen den frantses koadrila bat*. ■



Ekoizpen handien bertsio merke eta txarrak: horra The Asylumen arrakastarako formula.

Gaizka Izagirre

Hitz gezidunak

ZOLITU ORBAN	BEHERAKO PRASEO- DIMIOA	LORE MOTA	 DANI BLANCO		ERASORAKO TRESNA ELEMENTU KIMIKOA	MUSUKA PERTSO- NAIAREN ABIZENA	ZELATAN TAMAINAK
SUSTRAI ZINTZO	Idi, HITZ- ELKARKETAN OLINPIKO	BURURATU SANTU			GELDO ERABATEKO NAHASTE		
PERTO- NAIAREN JAIOTERRIA PERTSONAIA- REN IZENA		AUZOKIDE INAUTERI		EUSKAL JAKA ZERUKO ARGIA	KAUSA SUARI DARIONA	JAINKO EGIPTOARRA ZIBURU, ZABU	
BENINGO BIZTANLE	GARIAREN HAUTS ... ABASOLO, BERTSOLARIA		BETEEZIN UZTAIA		SARRERA ARTE		EUROPAKO MONETA
NEPTUNIOA ZIGILU	AITZIN ZORU, ZOLA		AFIXA 40 ERROMATAR ZENBAKIZ		MAHAI-JOKO TO, HI		URANIOA GALDE PARTIKULA
SUBSTANTZIA ELASTIKOA ELKARREKI- KO ERLAZIO			TXADEKO HERRITAR AZKEN LETRA			ABEREAK BAZKATZEKO LANDARE	

Sudokua

Bete gelaxkak 1etik 9rako zenba-
kiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3ko
koadro bakoitzean errepikatu gabe.

Zaila

						8		
	9		7			2		3
2					8	4		
5				1	4		2	
4			8		2			5
	7		5	6				4
		1	4					2
7		8			6		1	
		3						

5x5

Zeharretara eta goitik behera,
hitz bera.

- 1.- Zezen zikiratuak.
- 2.- Baia luzanga.
- 3.- Itorik.
- 4.- Aitormen.
- 5.- Argi.

Soluzioak

8	4	5	7	1	2	3	6	9
6	1	3	9	5	2	8	7	4
2	5	1	4	8	3	6	7	2
3	7	2	5	6	9	8	1	4
4	1	6	7	2	3	9	5	8
5	8	9	1	4	7	2	6	3
2	6	7	3	8	6	3	4	5
8	9	5	7	4	1	2	6	3
1	3	4	6	2	5	8	9	7

- 5x5:
1. Idiak
 2. Dantl
 3. Itora
 4. Aitor
 5. Klaru

O	T	O	I	O	I	Z	A	V	A	R	E	L	A	R	E	K	O
R	A	D	A	R	T	X	U	X	U	K	A	U	T	X	U	K	A
U										K	A	R	T	E	L		
E										X	A	R	E				
										A	T	E	A				
										A	R						
										A	S	E	Z				
										A	U						
										I	Z	O	K	O			
										K	A	R	I				
										O							
										K	A	I	K	U	A		
										T	I						
										M	O	T	E	L			
										A	R	G	O	N	A		
										P	A						

Aurrekoa atzera, kontainerrean

JAPONIAN fruituei egiten dieten ohiz kanpoko goratzarrearekin utzi nuen txoko hau uda aurrean. Uda eta udazkena arteko sasoi honi ezin ekin fruituak ahaztuta. Duela ez asko, bertsolari batek “errotu” eta “garatu” hitzen garrantzia berritu zidan. Bat dira. Zer da lehena, garatu denaren hazia errotzea edo errotutako hazia bilduko duen fruitua emateko garatzea? Erro eta

gara, bat. Erroa lurrean barrena luzatuko da, lurrera lotzen gaituen grabitatearen indarraren alde. Gara gora dator, grabitateari kontra egin ez. Lurpean eta lur gainean luzatzen den izaki bakarra da landarea, erro-gara. Izaki horren kopiak sortzeko bidea da fruitua. Fruituko hazia. Kopiak, baina halamoduzko kopiak, kopia okerrak, erdipurdikoak edo berebizikoak. Nork daki!

Hazia beti da mirakulua. Hazia aitaren eta amaren arteko nahasketaren emaitza gorena da. Arraren eta emearen arteko gurutzatzea.



ANDRÉ KARWATH-CC BY SA

Hazi batek milaka urteko informazio genetiko laburbiltzen du, eta itxura berria ematen dio. Argazkian, sagar haziak.

Amak eta aitak bakoitzak bere aldetik dakarten familia zuhaitzaren informazio genetiko nahasi eta berrantolatzen da hazi bakoitzean. Hazi batek milaka urteko informazio genetiko laburbiltzen du, eta itxura berria ematen dio. Etengabe berritu eta egokitzen den milioika urteko informazioari bizia emateko gai da hazi bat. Hibrido berriak. Etorkizuna.

Hazi bat edo fruitu bat jaten dugunero kontuan izan beharko genuke: oraintxe jaten ari garen babarrun berriak, lekak, sagarrak,

piperrak, alberjiniak, kuiatxoak, udareak... Eskuetan dugun hazi horrek zer historia ote dakar?, eta zer historia berri sortu nahi ote du? Berriz ere, bere espeziearen historia berritu nahi du atzera. Hazia hozitu eta errotuko litzatekeenetik atzera, landare berriak aurreko denei etorkizuna emango lieke. Landare bakoitzak, atzera, aurreabidea erakutsiz espeziea biziberritzen du.

Landare bakoitzak bide bat eta bakarra. Hazi bakoitza informazio genetiko berezi baten, aparteko konbinazio baten kontainera baita. Aurrekoa, atzera, hazi bakoitzetik atzera aurreratzen.

Errotu eta garatu hitzen kontua piztu zuen bertsolariari, “aurrera-atzera” hitzen joko luzatu nion, itzulinguruak utzi eta adarrez adar, jo eta salto ibili beharrean, errora jotzearen. Zainera. Kontu guztiak, edaten ari ginen sagardo eskas halakoaren erruz. Erdipurdiko alaena! ■



Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba. Duela dozena erdi urte inguru sagasti koxkor bat jarri genuen etxean –100en bat sagarrondo–, sagardoa egiteko usadioari jarraipena emate alde- ra. Hasierako urteetan orkatzen urteroko eraso- ja so izan dute, eta horretarako plastikozko babesak jarri izan dizkiegu. Azken aldian babes horien azpian enborra zulatuta aurkitu ditut sagarrondo bakan batzuk –txingorri eta zomorroz beteta–, beste pare bat erditik haizeak

puskatu ditu barrutik zulatuak zeudelako. Zauri horietan alanbrez garbitzen aritu naiz eta bakarren bat sua erabiliz ere garbitu dut. Han-hemenka galdetuta “zeuzera” eta halako tximeleta kaltegarriak aipatu izan dizkidate. Zerbait egin dezaket egoera konpontzeko, edo okerrera ez egiteko gutxienez? Eskerrik asko.

Lukas Etxeberria (Amezketeta)

Kaixo Lukas. Daratulua deitzen zaie har horiei. Bat baino gehiago badira: horia (*Zeuzera pyrina*), gorria (*Cossus cossus*) eta abar. Landare gazteak gustatzen zaizkie, azala eta zura guria dutenak. Jeneralean gorantz egiten du zuloa. Enborraren ondoan lur gainean azalduko den txirbil hezearengatik igarriko duzu sartua dela. Plastikozko babes horiek ez dute laguntzen, berari ezkutatzeko bai, geure zelatari ez. Urteko egunik luzeenetan pupa osatuko du harrak galeriaren sarrera ondoan, gero

handik, tximeleta gisara, erraz ateratzeko. Hark berri- z, atera kontuak, mila arrautzatik gora jar ditzake...

Udaberrian azti ibili eta enbor ondoan txirbila azal- duz gero zuloa aurkitu eta alanbre bat sartuz harra aka- batu arte gora behera dantzatu.

Eta orkatzak sagarrondotik uxatzeko baratxuria erabi- li. Uretan edo oliotan jarri pare bat egunez bi buru birrin- duta. Isipu edo zurdaki batekin busti enborra eta adar nagusiak. Baratxuri usaina ez dute, itxuraz, gustuko. ■



Abuztuaren 12an Berrian Zaldieroak izena jarri zion kofradiari.

Irakurleek zer diote?

BASERRIAK hustu, inguruak pinuz josi eta fabrikak bete genituenean ez genuen soilik bizimodua aldatu. Munduaren ikuskera bat galdu genuen, naturarekin lotzen zena. Galeraren neurria hartzeko, adibide bat. “Bide ertzean arbola bat dago” esan genezake kaletarrok lasai asko. Ez dakigulako arbolak bereizten, noski. Ez genuke esango “Bide ertzean animalia bat dago”, baizik behia, txakurra, astoa, edo elefantea.

Beste adibide bat dago Jakobaren liburuan. Natura ezagutzen duenak badaki lehenik “eman” egin behar dela, gero “hartu” nahi bada. Baina pertsonen artean hartu-emanak dauzkagu, hau da, lehenbizi nahi dugu hartu eta gero –izatekotan– eman. Nire amak “bi kakoak etxera begira” zituen egoista salatzen zuen, bere bi hatz erakusleak kakotuta. Nik ere uste dut etorkizun hobeia ez dela etorriko lehenbizi hartu eta gero emanda, edo bi kakoak gugana bideratuta; eta gure auzolaneko ohiturak iraun dezan, komeni zaigula eman-hartuetan gehiago aritzea.

Ni ere jakobita bihurtu ote naiz?

Mikel Irizar,

Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasunerako zuzendaria

Bizi Baratzea liburuaz Errekondok Ainhize-Monjolosen emandako hitzaldiaren bideoa ikusgai www.argia.eus/multimedia helbidean.



Eskuratu liburua sinaturik

Bizi Baratzea ARGIAN erosiz gero, Jakoba Errekondok eskuz sinatutako hitz batzuekin jaso dezakezu liburua.

Egileak herriz herri ematen dituen hitzaldietan ere (ikusi ondoko zutabean non-noiz) baduzu sinaturik eskuratzeko aukera.

Eskaerak

Salneurria: 23 €
Harpidedunentzat: 19,50 €

☎ 943 371545
www.argia.eus/denda
denda@argia.eus

Zure saltokian liburua salgai jartzeko, deitu.



@bizibaratzea · Informazio gehiago: www.argia.eus/bizi-baratzea



AURKEZPEN SOLASALDIAK

herriz herri

Jakoba Errekondok baratzeari buruzko bere jakintza herritarrekin partekatuko du Euskal Herri osoan.

Hauek dira ondorengo hitzorduek:

Irailak 18
Ozaeta

Ordua eta lekua zehazteke.

Irailak 22
Alegia

Inaxio Begiristain
Kultur Etxean, 18:30ean.

Irailak 23
Algorta

Egizu! elkarteak antolatutako Uribe Kostako Irakurzaileen Txokoaren baruan.
19:30ean, lekua erabakitzeke (eguraldiaren arabera)

Irailak 24
Urduña.

Alondegian, 19:00etan.

Irailak 29
Zaldibia.

Goierriko Hamabostaldi Ekologikoaren baruan, lekua eta ordua zehazteke.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

Jar zaitez gurekin harremanetan eta behar duzun informazioa eskuratuko duzu.

sustapena@argia.eus
☎ 943 371 545

Ur azpian bustiko ez den materialaren bila

EURI URAK bustitzen ez duen gainazalen inguruko berria aipatu izan dugu sail honetan. Oraingoan, are zailagoa dirudien zerbait aipatuko dugu: ur azpian ere lehor mantentzen den materiala.

Northwestern Unibertsitateko (AEB) Neelesh A. Patankar ingeniariaren lantaldearen arabera, gainazalak ur azpian lehor manten daitezzen itxura eta ezaugarri bereziak behar dituzte. Garrantzi handia du zimurtasunak; zimurretan dauden "haranen" diametroak mikroia, hots milimetroaren milarena, baino txikiagoa izan behar du, horrela lortzen baita haran horietan ur lurrina pilatzea ur likidoaren orde. Ezaugarri hori hainbat ur-intsektuk dute, beraz naturan existitu egiten da jada.

Horrelako material batek abantaila itzelak eskaini ditzake. Itsasontzietan, esaterako, oso ohikoa da ur azpian dauden aldeetan animalia ugari itsastea; horrek urarekiko erresistentzia handitu eta erregai kontsumoa handitzen du. Ontziaren gainazala lehor mantentzeak arazoa saihesten lagundu lezake. ■



Uretan siku mantentzen den material batek ontzietan animaliak itsastea eragotzi lezake.

WWW.MARITIME-EXECUTIVE.COM

Koloneko minbiziaren aurka, kafea

Koloneko minbizia kirurgikoki eta kimioterapiaz tratatutako gaixoei egindako azterketa baten arabera, egunean lau kafe edo gehiago hartzen dutenengan minbizia berriz garatzeko arriskua %42 txikiagoa da kafeirik hartzen ez dutenengan baino. Bizpahiru kafe hartzen dutenengan onura txikiagoa behatu dute, eta ia bat ere ez egunean bakarrik hartzen dutenengan.

ttiki.com/341035
(Gaztelaniaz)

Material ez-magnetikoak magnetiko bihurtzeko bidea

Nature aldizkarian argitaratutako emandako artikulu batean azaldu dutenez, Leedseko Unibertsitatean, Erresuma Batuan, kobrea eta manganesoa magnetiko izatea lortu dute molekula organikoekin konbinatuz. Modu horretan, material magnetiko berriak sortzeko bidea zabaldu dute.

ttiki.com/341036
(Euskaraz)

Stephen Hawkingek hitz egiteko darabilen softwarea askatu dute

DOUG WHEELER-CC BY



STEPHEN HAWKING astrofisikariak eta Intel konpainiak ACAT izeneko gizaki-makina interfazea liberatzea erabaki dute.

Sistema horren bidez, betaurrekoetan dagoen hargailu infragorri batek aurpegiko muskuluen higidura detektatu eta ordenagailu batera bidaltzen du, ahots robotiko bihurtuz.

ACAT interfazea Windows sisteman baino ez du funtzionatzen, eta gaixotasun

neurodegeneratiboak dituzten pertsonen bizitza hobetzea espero da, hitz egiteaz gain ordenagailuetan oinarritako hainbat eragiketa egitea ahalbidetzen baitu.

Inork sistema honen ezaguera zabalagoa nahi badu edota softwarea deskargatu nahi badu ondoko helbidera jo beharko du: <https://01.org/acat>. ■

Lurraren barne geologia ezagunago, diamantei esker

Diamanteak 150 eta 220 kilometro bitarteko sakoneran sortzen dira, eta inguruan dauden likidoak berenganatzen dituzte. Lurrazalerantzko bidea egitean euren ezaugarri kimikoak aldatzen ez direnez, lur azpiko informazio garrantzitsua garraiatzen dute.

ttiki.com/341037
(Gaztelaniaz)

Babeslea: iametza Interaktiboa

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

ideia batetik errealitatera

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Eguzki Erregeak piztu zuen Argiaren Hiria

HYACINTHE RUGAUD



ESCALE DE NUIT

Ezkerrean, Lus XIV.a Frantziakoa; hark eman zuen Parisko kaleak lehenengoz argizatzeko agindua. Eskuinean, Parisko kale bat, gauez, 1940ko hamarkadan.

PARIS (FRANTZIA), 1665. Luis XIV.a errege ahalguztidunak, Parisko kale ilunetako arriskuez nazkatuta, argiztatzeko publiko zerbitzu bat sortzeko agindu zuen. Hala, Lastargi eta Argiontzi Eramaileen Zentroa fundatu zuen. Eramaileak hiriko gune nagusietan egon ohi ziren, 300 pausoko tarteetan kokatuta, oinezkoak etxeraino laguntzeko prest. Hiru solen truke, hamabost minutuz ematen zieten argia, eta zalgurdia erabiltzen zutenek gehixeago ordaindu behar zuten, bost sol, eramailea karrozara igo zedin.

Diotenez, Eguzki Erregeak ez zituen soilik menpekoak izan gogoan eta bere buruaren mesedetan ere hartu zuen erabakia; Frantziako –eta Nafarroako– monarka gonazale eta alkoholzale amorratua omen zen, eta ederki jakingo zuen gauez putetxeetatik mozkortuta irtetea eskertzea zela norbaitek kale galbidetsuak argiztatzea.

Zerbitzuak berehalako arrakasta izan zuenez, Luis XIV.ak argiztatze sistema finkoa jartzeko ardura eman zion Nicholas Gabriel de La Reynieri. La Reynie Parisko poliziako lehen lotinant jenerala izan zen, eta lehen polizia gorputz modernoaren sortzaileztat jotzen da.

1667ko irailaren 2an 2.736 kaleargi piztu zituzten, karrika eta etorbide bakoitzeko bizpahiru: bat, kalearen erdialdean eta beste bi, kantoietan. Urte gutxian argi kopurua 5.000ra iri-

tsi zen. Zerbitzuak, herritarrei mesede egiteaz gain, eragozpenen bat ere eragin zien. Batetik, herritarrek iluntzero argiak piztu eta goizaldero, ordu bietan, itzali behar zituzten, urritik martxora bitartean. Kedarrak kaleargien kristala zikintzen zuenean ere, haiek garbitu behar zuten. Gainera, zerbitzuaren mantentze-lanak zerga bidez finantzatzen ziren, hau da, herritarrek, argiaren truke, Taxe des Boues et Lanternes delakoa –lokatzen eta linternen gaineko zerga– ordaindu behar zuten. Sistemak oso oinarritzakoa, deserosoa eta garestia dirudi gaurko begietatik ikusita, baina kontuan izan behar da beste bi mende joango zirela argiztatzeko elektrikoa sortu baino lehen; kaleargi elektrikoz argiztatutako lehen hiria Wabash (Indiana, AEB) izan zen, 1880ko martxoaren 31n.

Argiak saltokiei mesede handia egin zien, eta hiriko merkataritza-jarduera bikoiztu egin zen, hainbat iturriren arabera. Bisitariak ere txundituta utzi zituen, “Parisen gauez eguerdian bezainbeste argi dago” esateraino.

Zenbaitentzat, Luis XIV.aren oinordekoei lepoa moztu zien iraultzak Antzinako Erregimenaren iluntasuna eten zuelako merezi du hiriak goitizena. Beste batzuek artean eta kulturaren nabarmendu izanari leporatzen diote. Baina literalki, argiztatze publikoa jartzen lehena izan zelako esaten zaio Parisi Argiaren Hiria. ■

Arrastoak

Cannabisa Shakespearearen pipetan

WITWATERSRAND (Hegoafrika) Unibertsitateko ikerlariak William Shakespearearen jaioterri Stratford-upon-Avon-en aurkitutako hainbat pipa aztertu dituzte, horietako batzuk idazlearen lorategian bertan topatutakoak.

Masen espektrometria eta gasen kromatografia teknikak erabiliz, aztertutako 24 pipa zatietatik zortzitan cannabis arrastoak aurkitu dituzte eta, beste bitan, koka hosto arrastoak. Kalamua zuten lau zati idazlearen lorategikoak ziren, ustez idazleak berak erabilitakoak; gainerakoak, inguruko beste etxe batzuetakoak.

Shakespearek drogan eraginpean idazten zuela esan nahi al du horrek? Witwatersrand Unibertsitateko Francis Thackerayen hipotesiaren arabera, idazleak kalamua erretzen zuen, baina koka historik ez, kokaren eragin kaltegarriez jabetu omen zelako. Hipotesiak hipotesi, ikerketak frogatu duena da duela 400 urteko Ingalaterran drogen kontsumoa hedatua zegoela. ■



Shakespearearen etxea, Stratford-upon-Avon-en. Etxeko lorategian hainbat pipa zati aurkitu zituzten, eta horietako lautan, kalamu arrastoak.

«Gerra zibileko matoi asko lasai ederrean hil ziren, inolako damurik gabe»

Nafarroan 1936an faxistek eragindako milaka hilketen erantzuleen inguruko informazioa biltzen ari da Bingen Amadoz (Murillite, 1952) ikerlari eta kazetaria. Fusilatuen senidea izaki, garbi du biktimek ez dutela mendekurik bilatzen, baina sarritan euren buruei sinetsarazi diete hiltzaileak gaizki amaitu zuela, “eta asko lasai ederrean hil ziren”.

Testua eta argazkiak:

| KOLDO AZKUNE ETXABARRI |

KONTU EZAGUNA DA 1936ko Gerrak Nafarroako bazter gehienak odolez zikindu zituela. Mola jeneralak “beldur-giroa” sortzea beharrezkoa zela ebatzi zuen, eta, agindu sekretu baten bidez, Fronte Popularrarekin zerikusia izan zezakeen edonor fusilatzea bidali zuen. Heriotza-orgia horretan hil zituzten artean, Bingen Amadoz, Euskadi Irratiko kazetari ohiaren aitona eta osaba zeuden, Murilliteko bizilagunak biak, lur komunalen aldeko borrokan nabarmenduak. Zigorra ez zen, baina, bere horretan gelditu, eta hurrengo urteetan segida izan zuen, eguneroko joan-etorrietan senideen garunean tiro egin zuten hiltzaileekin gurutzatu behar izan zutelako, umilazioa biderkatuz.

Orain, aurre-jubilazioa hartuta, kazetari nafarrak hiltzaileen inguruko testigantzak jasotzen dihardu, ahal duenean liburu batean argitaratzeko asmoz, Gerra Zibilaren justizia eza egiaresen aitortzarekin arindu daitekeela sinetsita.

Iruñeko udal aldaketa dela-eta “Eroritakoen” eraikinaren afera mahai gainean dago berriz. Nola da posible Iruñea erdian Mola eta Sanjurjo faxisten hilobiak mantentzea?

Lehenik eta behin, plazari izena aldatu beharko zaio. Rodeznoko kondeak milaka heriotza-zigor sinatu zituen, hiltzaile ikaragarria izan zen. Gero, noski, Mola eta Sanjurjoren gorpuzkinak euren familiek nahi duten lekuetara eraman beharko lituzkete. Leku hori hustu egin behar da, garbitu. Eraikuntzarekin ez dakit zer egin daitekeen. Batzuek esaten dute bota egin behar dela, edo Memoriaren museo bilakatu... Ezkabako gotorlekuarekin ere arazo bera daukagu. Bi gune hauekin zer egin publikoki eztabaidatu behar da.

“Asko izan ziren pertsona gutxi batzuk hil zituzten ‘matoiak’. Harrituta gelditzen naiz ‘nire aitona falangista edo erreketea zen, baina pertsona ona’ entzuten dudanean. Izan liteke, baina ‘matoiak’, nonbait egotekotan euren artean zeuden”

Zure familia faxisten errepresioaren helburu izan zen. Denbora asko pasa da orduz geroztik, sendatu al dira zauriak?

Zama horren presioa bizitza osoan sentitu dugu gainean. 1936ko abuztuaren, gauez, herriko beste bost lagunekin batera aitona eta osabari eskuak lotu eta Marcillara doan bide bazterrera bota zituzten, tiroa eman eta gero. Sozialistak ziren eta gizartea hobetzeko konpromisoa zuten hartuta. Nire ahai-deek aberatsek lapurtutako komunak herriarentzat berreskuratu nahi zituzten, eta borroka horretan nabarmendu ziren. Beste hainbat etxetan bezala, gurean ere ikaragarri sufritu izan da. Nire aitari bizitza errotik ebaki zioten 13 urte baino ez zituela, etorkizunik gabe utzi zuten. Ahal izan zuten guztia lapurtu ziguten, eta galtzaileak ginenez emigratu beharrean izan ginen. Batzuek Ameriketara jo zuten, beste batzuek Gipuzkoa eta Bizkaira. Sarraski hura gertatu izan ez balitz, egun oso bestelakoak izango ziren gauzak.

Familiak normaltasunez heldu dio jazotakoari?

Bai aitak eta bai amak etxean beti



"Boteretsuek erreklamazioak egiten zituztenen kontra jo zuten eta horretarako beren zerbitzura zeuden morroiak erabili zituzten, herriko miserableenak, klase kontzientziarik gabeko gajoak". Irudian, Sartagudako Memoriaren parkean.

horren berri ematen ziguten, oso kontziente ginen. Karrikan gure senideen hiltzaileak ikusten genituen. Beste familia batzuetan gertaera horiek isiltzea aukeratu zuten, gurean ez baina. Hiltzaileak ez ziren bakarrik tiroka ibiltzen zirenak. Salatariak ere hiltzaileak ziren, susmagarrien zerrendak idazten zituztenak... Inork ez zuen 1936an etorriko zena espero, beren aldamenekoengandik, eta batzuetan beren familikoengandik, halako erasoak sufrituko zituztenik. Eromen kolektiboa izan zen.

Nortzuk erein zuten eromen horren hazia?

Herrietan boterea zutenek, aberats batzuek. Baina hilketak egiterakoan, pobreenak izan ziren horien ardura-dun. Boteretsuek erreklamazioak egiten zituztenen kontra jo zuten eta horretarako beren zerbitzura zeuden morroiak erabili zituzten,

herriko miserableenak, klase kontzientziarik gabeko gajoak.

Zergatik ari zara "matoien" gaineko informazioa biltzen?

Gerra Zibilaren kontaktetan hutsune asko daude, eta gai hori horren adibide da. Hiltzaileez ez da ia hitz egin, tabu moduko bat izan da. Biktimen testigantzak jasotzen ditudanean bi gauza errepikatzen dira: ez dituzte hiltzaileen izenak eman nahi oraindik beldurra existitzen delako, eta horretaz gain, ez dituzte hiltzaileen ondorengoak kaltetu nahi, horien artean ere oso pertsona onak daudelako. Erreketek eta falangisten oinordekoek, aitzitik, behin eta berriz zera errepikatzen didate: beren aitona edo dena-delakoa oso pertsona ona izan zela. Eta tira, batzuk onak izanen ziren, baina ez denak.

Argi izan behar dugu erruak ez direla heredatzen, erruak pertsona-

lak direla eta ez beste inorenak. Biktimek ez dute mendekurik bilatzen, eta are gutxiago hiltzaileen ondorengoek kontra.

Zeintzuk dira Nafarroako "matoi" ezagunenak?

Berbintzanako *Txato* da ospetsuena, herri gehienetan aipatzen dute



**Eskulanen
Etxea**

Elkano kalea, 5. Donostia 20004
T. 343 420 205 | F. 943 426 522 | M. 688 662 858
info@casalabores.com | www.eskulanenetxea.com



"Nire aitari bizitza errotik ebaki zioten 13 urte baino ez zituela, etorkizunik gabe utzi zuten. Ahal izan zuten guztia lapurtu ziguten, eta galtzaileak ginenez emigratu beharrean izan ginen".

bere izena. Kaparrosoko *Foro* ere ezaguna izan zen, edo Iruñeko Galo Egues edo Benito Santesteban. Gutxi batzuk nabarmendu ziren, baina "matoï" asko egon ziren pertsona gutxi batzuen hiltzaile izan zirenak, beren herrian edo ondoko herrian... Horregatik harrituta gelditzen naiz "nire aitona falangista edo erreketea izan zen eta oso pertsona ona" esaten didatenean. Izan liteke, baina "matoiak" nonbait egotekotan euren artean zeuden.

Eta elizak zer zerikusi izan zuen "matoiei" bide eman zien 1936ko uda odoltsuan?

Elizak oso paper beldurgarria izan zuen. Mingarria da ikustea apaizak zein punturaino izan ziren kolaboratzaile. Apaiz gutxi batzuk ere biktimak izan ziren, Pitillasen, Kasedan edo Iturenen, kasu, baina gehienak kolaboratzaile zuzenak izan ziren. Batzuek sermoietan jendea hiltzera animatzen zuten, beste batzuek zuzenean joaten ziren "matoien" artean, beste batzuek tiroak eman zituzten, beste batzuek armak konfesatokitian banatzen zituzten...

Gerra amaituta, nola lortu zuten hildakoen senideek hiltzaileekin batera bizitzea?

Nekez. Askok ezin izan zuten haldakoa umilaziorik jasan eta herritik ospa egin zuten, ezin zutelako beren aitaren edo anaiaren hiltzailea aurrez aurre ikusi, zigorrik gabe, harro-harro paseatzen. Biktimen familiek inpunitate hori oso gaizki eraman zuten. Inpunitate horren aurrean, herriak justizia mentala baliatu du; hots, euren buruei sinetsarazi diete hiltzaileek oso gaizki bukatu zutela, oso gaizki eraman zituztela euren bizitzetako azken urteak, erotu zirela, beren buruez

"Lan hau nahitaez mantso hartu behar izan dut, kontatzen dizkidaten gertaera horiek barneratu behar ditudalako. 3.500 drama ezberdin dago. Maiz etxera lur jota itzultzen naiz"

Libururako testigantza

FRANCO HIL eta berehala familiak hildakoen gorpuen bila abiatu ziren, eta urte horietan 40 urte lehenago Nafarroan desagertutako gorpu asko berreskuratzea lortu zuten. Erriberri baten emakume bat gerra garaian aita hil ziotena, eta berau ere gorpu hori berreskuratu nahian zebilen. Tamalez, ez zekien nora jo. Hortaz, Erriberriko apaiz bati hurbildu zitzaion. Apaiza gaztea zen, nahiko irekia. Emakumeak susmoa bazuen nor izan zitekeen aitaren hiltzailea, baina ez zegoen seguru. Badaezpada, ustezko hiltzailearengana hurbildu baino lehen, apaizaren bitartekaritza aukeratu zuen. Apaizarekin datu horiek guztiak partekatu zituen, eta elizgizonak mesede hori egingo ziola agindu zion. Bada, apaizak susmagarriaren etxeko atea jo, eta bisitaren arrazoiaren berri eman zion. Ezustean, zera erantzun zion gizon horrek apaizari: "Nik ez dakit ongi gizon hori non arraio dagoen lurperatuta. Galde izeaiozu zure aitari, berak aski ongi baitaki, galdetu zure aitari".

beste egin zutela... Eta egia da batzuk horrela bukatu zutela, baina beste asko lasai ederrean hil ziren, ohean etzanda, inolako damurik gabe.

Noizko espero duzu egiten ari zaren azterketa amaitzea?

Entzun behar izan ditudan hain kontu latzak direnez, lan hau nahi eta nahiez mantso hartu behar izan dut, kontatzen dizkidaten gertaera horiek barneratu behar ditudalako. Eta oso zamatsua suertatzen da hori, sufrimendu handia dagoelako, eta sufrimendu hori kutsatzen delako. 3.500 drama ezberdin dago. Maiz etxera lur jota itzultzen naiz. ■



Egunero lan berriak sareratzen ditugu
1.300 bideo baino gehiago ikusgai




Erreportajeak

Bost minutuko bideoak. Gai mamitsuak era argian azalduta.



Elkarriketak

Zer esana eta pentsatua ematen duten pertsonekin solasean.




Argazki galeriak

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.




Ekitaldiak

Ekitaldi interesgarriak klik batean, baita nazioartean emandakoak ere.



Film laburrak

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.




Dokumentalak

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpitituluekin.



Solasaldiak

Gai zehatzei buruzko eztabaidak, hitzaldiak eta mahai-inguruak, gogoetarako material gisa.



Bideo herrikoiak

Euskal Herrian jendearen ekimenez egindako bideoen biltokia.

Feminismoaz irakurtzen, euskalgintzako betaurrekoak jantzita

Gure genealogia feministak liburu mardula irakurri berri dut. Baina ezin liburua irakurri jantzita daramatzadan euskalgintzako betaurrekoak erantzi gabe, ezin irakurri behin eta berriro feminismoaren eta euskalgintzaren artean loturak (eta desloturak) egin gabe, ezin irakurri behin baino gehiagotan inbidia latza sentitu gabe.

| TXERRA RODRIGUEZ |

MIREN ARANGURENEK, Edurne Epeldek eta Iratxe Retolazak ondu dute liburua. Euskal feminismoaren barrunbeetan, zoko-mokoetan, eztabaidetan eta jardunbideetan kukutxo bat egiteko bidea errazten du. Eta beste mugimendu batzuekin estekatzeak egiteko.

Gurean talde feministetan hasitako asko amorruek eragina hurreratu ziren haietara, eguneroko nozitzen zuten zapalketari nolabaiteko erantzuna emateko asmoz. Behin hasita, ordea, militantziarekin bat formatuz joan ziren gazte horiek: diskurtsoak landu, antzeko bizipenak dituztenekin konpartitu, teoria eta praktika berriak ikasi... Esate baterako, Bilboko Santutxu auzoko Iduna elkarteak kide batek honakoa esaten du liburuan: “Auzoan lan egiteko grina piztu zitzaidan, nik beti argi izan dut feminista nintzela. Inguruan nituen jarrera matxistak, txikitatit diskriminazioa pairatu dut, hau barruan eraman izan dut. Garai hartan, hala ere, ez genuen gaiaren inguruko teorizaziorik, baizik eta amorruek genuen, zerbait egin nahi genuen”.

Euskalgintzan, ordea, nago barne dinamika ez zaiola behar besteko garrantzia eman. Gurean aktibismo asko egon da (dago!), baina hausnarketa, diskurtsoa, barne bisio, sentimendu partekatze, bizipen parteka-

tze txikiegia akaso. Zerk bultzatu gintuen euskalgintzan aritzera? Norekin konpartitu ditugu sentimen edo bizipen horiek? Zer sentitzen dugu egunerokoan euskaldun arituz? Zer sentitzea gurako genuke?

Ez naiz ibili emakume taldeetan. Euskara elkarteetan, ordea, bai. Eta horrelakoetan ez dut antzeman gure egoera digeritu eta aldatzeko barne gogoetarik

Ni ez naiz ibili emakume elkarte/taldeetan. Euskara elkarteetan, ordea, bai. Eta horrelakoetan ez dut nik antzeman euskaldun gisa ditugun arazoei buruz berba egiteko paradarik, ez dut antzeman gure arazoei kasu egiten zaienik, ez dut antzeman gure egoera digeritu eta aldatzeko barne gogoetarik. Modu sistematikoan eta antolatuan, behin baino.

Egia esateko, amorruek eraginez sortutako neska gazteen talde horietako askok bizitza laburra izan du. Baina liburuan batek baino gehiagok aitortzen du talde horiek

sekulako marka utzi dietela eta euren etorkizuneko bilakaeran ezinbestekoak izan direla. Feminismoaren “eskola” izan direla, alegia. “Eskola” horiek ere beharrezkoak direlakoan nago, ikasi, asmatu eta erratzeko aukera emango diguten eskolak.

Talde eta elkarte feminista askok azken urteotan, batez ere, transgresioa, freskotasuna, txinparta... ekarri dituzte plazara. Gurean, ordea, ez ditut horrelakoak ikusi (han eta hemen bai, baina oro har ari naiz). Zergatik gaude hain *apalankatuta*? Administrazioarekiko larregiko dependentzia akaso? Erakundetze eta profesionalizazio maila altuegia akaso? Koldo Izagirrek salatzen zuen funtzionarizazioa ote?

Baina natorren adibideetara. Liburuan emakume abertzaleen topaketetan izandako eztabaida eta gogoetak batzen dira. Horrez gain, topaketen alde ludikoagoari ere egiten diote leku: talde sentimenduari, kohesioari, igurtziari eta abarri. Euskaltzaleen topaketak, ordea, eta salbuespenak salbuespen, gatz bakoak dira, eta liburuan esaten dena gurean imajinatzea nahiko zaila egiten zait gaur-gaurkoz.

Euskalgintzak urteetan plantoa eta ekintza zuzena erabili izan ditu: ikastolen sorrera, gau eskolen sorrera, unibertsitateetan egindako plantoak, ezabaketa egunak eta abar.



DANI BLANCO



KONTSEILUA

Txerra Rodriguezen iritziz, talde feministek transgresioa, freskotasuna eta txinparta ekarri dituzte plazara. Euskalgintzan ez du horrelakorik ikusten. Ezkerrean, abortatzeko eskubidearen aldeko manifestazioa Iruñean, 2014ko apirilean. Eskuinean, 2015eko apirilean Iruñean, Anaitasuna kiroldegian, euskaraz bizitzeko aldarrikatzeko egindako ekitaldia.

Hala ere, azken urteotan gutxi erabili izan dira horrelakoak. Feministak, aldiz, gero eta sarriago ari dira horrelakoak erabiltzen euren aldarrikapenetan. Euskaltzaleok zailtasunak ditugu guk nahi ditugun mezuak helarazteko eta ekintza zuzenak bide ona izan daitezke mezu horiek zabaltzeko. Ez ala?

Euskal feminismoaren historiari, azken urteotan behinik behin, aniztasuna eta dinamikotasuna dario: elkarte asko eta lan ildo asko ireki dituzte azken urteotan. Eta horrek berriro ere euskalgintzara narama artez: horrenbeste urteren ondoren, inori ez zaio bururatu, esate baterako, etorkin euskaldunen elkarterik sortzea? Edo euskara nagusitan ikasi dutenen elkarteak? Edo euskara teknikarien elkargo profesionalik?

Edo euskara hutsez biziko direnen laguntza antolatuko duen elkarterik? Edo... Ba, antza ez.

Inbidia latza pasatu dut liburua irakurtzen. Nahiko nituzke euskalgintzarentzat feminismoak azken urteotan duen bizitasuna, konplexutasuna eta intuizioa

Beste kontu bat ere ekarri nahiko nuke lerrootara: feminismoak emakumez osatutako erakundeetan

garatu du bere jarduna. Baina ez du inondik ere ahaztu jendartearen “beste” erdia. Eta hasieratik eta nahiko sistematikoki saiatu da haienganako diskurtsoak sortzen eta elikatzen. Gurean, ostera, ez dut ikusi nik erdaldunenganako diskurtsoak azken urteotan (“zoaz euskaltzalea” bezalako errieta-aginduak kenduta). Eta euskaldunok elikatzen ez baditugu, nork elikatu behar ditu gure aldeko diskurtsoarekin?

Inbidia latza pasatu dut liburua irakurtzen. Nahiko nituzke guretzat feminismoak azken urteotan duen bizitasuna, konplexutasuna eta intuizioa. Nahiko nituzke bai. Asko dugu ikasteko, asko dugu ikusteko, asko egiteko, asko deseraikitze eta asko desikasteko. Eta, ahal den neurrian, elkarrekin. ■

tradEBi
EB Traducciones Itzulpenak, S. L.
www.tradEBi.com

EUSKALERRIA IRRATIAK BADU LIZENTZIA

«Funtsean gure eskubideen jabe izatea irabazi dugu»

1987an lizentziarik gabe ekin zion bideari Euskalerria Irratiak eta 27 urteren ondoren etorri da hainbeste desiotako baimena. Mikel Bujanda zuzendaria lehen lerroan aritu da lizentzia lortzeko lanean.

| XABIER LETONA BITERI |

Zein balorazio egiten duzu lizentzia lortu izanaz?

Lehenago ere etor zitekeen, baina UPNk ez du nahi izan. UPNk ere bazekin 1998ko kontratazio mahaiak emandako puntuazioan gure proiektua zela lehenbizikoa, eta prozedura mahai hark berak amaitu izan balu emango ziguten lizentzia, baina orduko sailburuak eta zuzendari nagusiak parte hartu zuten eta egoerari buelta eman zioten. Mahaiaren txosten hura aztertu duen edonork, epaile izan ala ez, bidegabekeria berehala ikusiko zuen. UPNk hamaika aukera izan du hura zuzentzeko, baina ez du nahi izan. Orain, azken erabakia UPNk berak izendatutako mahai batek eman du. Ez dakigu zein zen UPNren benetako nahia, baina guk pozez hartu dugu erabakia. Eta hala ere, bihotza bero baina burua hotz, hori da gure leloa.

Gobernu aldaketarekin espero zen lehenago edo geroxeago lizentzia eskuratuko zela, baina lehengo gobernuaren prozeduratik etorri da. Espero zenuten halakorik?

Bada bai, ez dizut ukatuko, espero genuen. Guk bagenekien lizentziarako eskubidea genuela, baina legezko auzia ere irabazi egingo genuela sinetsi izan dugu beti.



GORKA BEREZIARTUA

2014an ezagutu genuen Madrilgo Auzitegi Goreneko epaia eta honek bukatutzat ematen zuen bide judiciala; eta agintzen zion Nafarroako Gobernuari lizentzien banaketa berriz egiteko, baina 1998an finkatutako puntuazioa aintzat hartuta. UPNren Gobernu luzamendutan ibili zen ondoren eta lehen bilera iazko ekainean egin zen. Harrez gero gu ibili izan gara informazio eske eta lana aurreratua zegoela ikusten genuen. Gobernu utzi aurretik, beraz, UPNk onar zezakeen bere kontratazio mahaiak egindako balorazioa. Haiek jakingo dute zergatik, baina ez dute egin nahi izan eta gobernu berriak egina topatu du.

Honek zer aldatzen du irratia-egunerokotasunean?

Segurtasun juridikoa esaten zaio, baina funtsean gure eskubideen

jabe izatea irabazi dugu, sozietate feudal batetik sozietate demokratiko moderno batera iragatea bezala da. Honek ondorioak izan behar ditu arlo profesionalean, kontratazioak egiterakoan eta halakoetan, baina baita gure proiektuaren garapenean ere. Ziurgabetasun juridikoan aritu gara orain arte eta hori oztopo handia izan da.

Horrek, aldi berean, elkartasun eta laguntza gehigarria ekarri digu euskaltasunaren aldetik. Laguntza horren konplizitateari eutsi nahiko genioke aurrerantzean ere. Gure helburua da Iruñerriko euskal jendeari komunikazio proiektu funtzionala eta kalitatezkoa eskaintzea; orain aukera hobea goa izango dugu zerbitzua hobeto eskaintzeko.

Behin harresi hau erorita, hurrengo urratsetakoa Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak eskuratzea izango da, ezta?

Lorpen hau alor guztietara zabaldu behar da. Gure diru sarrera nagusia publizitatea da eta orain arte publizitate instituzionala guztiz ukatua izan dugu; adibide bat da hau, bada zer normaldu. Gure ustez, honek bultzada handia ekarri beharko luke, bai arlo ekonomikoan eta baita profesionalean ere. ■

Biarritzen, Mintzalasai ekimenaren laugarren edizioa

BIARRIZKO KALEETAN, haur parkeetan, okindegian eta lantokian euskara erabiltzea bultzatu nahi du Mintzalasai ekimenak.

Erabilera, erakargarritasuna eta ikusgarritasuna ditu ardatz, hizkuntza paisaia elebkarrean, dendari askok euskaraz ez dakiten herrian, beti ez baita erraza euskaraz egitea. Oztopen aurrean aukerak bilatu nahi dituzte ordea biarriztarrek eta pentsatu nahi dute “gutxi” baino, “uste baino gehiago” direla.

2011n hasi ziren antolatzen Mintzalasai. Sare handiak hartzen du parte antolaketa. Zazpi egunez luzatzen da egitaraua, 70 hitzordu izaten dira Biarritzen barrena. 25 elkartek antolatzen dute astea, 50 egiturak hartzen dute



Argazkia 2014ko Mintzalasai saiokoa da. Egunetako bat haurrentzat antolatzen dute.

parte eta 100 pertsona inguruk laguntzen dute.

Mintzalasai astea irailaren 21etik 27ra bitartean izango da. Egun bakoitzean gai bat landuko dute: 21ean, sukaldaritza eta ardo dasta-

keta; 22an, formakuntza; 23an, haurren eguna; 24an, mintzaldi, proiektzio eta eztabaidak; 25ean, hizkuntzen eta kulturen topaketa; 26an, dantza; eta 27an, euskara familian eta lagunartean. Mintzalasai-ren webgunean egitaraua osatuago agerida.

Antolatzaileek erakunde lanaren zain egon gabe, euskara erabiltzeko norberak egin dezakeenari eman diote lehentasuna eta horrela dio Mintzalasaien aurkezpenean: “Badakigu

indarrean diren hizkuntza politikak oraindik eskasak direla beharrezko emaitza sakonak eragiteko. Baina nehorren nahikeria itxoin gabe, gauza asko egin ditzakegu, gure buruak aktibatzen hasiz”.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Esnea ez dator iturritik

HALA DA, ESNEA EZ DATOR ITURRITIK. Horixe da euskal esneki-esplotazioetako langileek eta Espainiako Estatukoek Nekazaritza ministro espainiarrari esan berri diotena. Eta gauza bera esan diete arduradun foral eta autonomikoei. Esneak, aurretik lan bat eskatzen du, esplotazio egoki bat. Horrek prezio bat dauka, gutxieneko kostuak bertan hartuko dituenak. Baina merkatuak, industriek eta saltoki handiek ez dute hori onartu nahi, produkzio kostuen azpitik dau den prezioak ezartzen ari baitira. Horrek sektorearen agonia sorrarazi du; azken urteetan ehunka ustiategi itxi behar izan dituzte eta milaka lanpostu galdu dira. EAEn esnea produzitzen duten baserriak azken hamalau urtetan 3.274 izatetik 735 izatera pasa dira; behi kopurua ere erdira jaitsi da: 2000. urtean 40.434 behi zeuden, 2014an berriz, 20.565. Egoera honen aurrean, abeltzainek mobilizazioak hasi dituzte, eta akordio batera iritsi ezean jarrera gogortzeko aukera zabalik utzi dute.

Zein da arazoa? Abeltzainak babesgabe daude, inolako araudirik ez duen merkatuaren aurrean. Industriak

ezarritako prezioek askotan ez dute produkzio kostuak ordaintzeko adina ematen. Ohikoa da prezio hori esnelitroko 0,24 eta 0,28 eurotan egotea, baina kostuak ordaintzeko gutxienekoa 0,35 euro dela kalkulatu dute arduradun sindikalek. Zenbait baserriar 0,15 baino ez zaie ordaindu! Horrela ezin da lanik egin, atek ixten ari dira. Esnetarako behia desagertu egin daiteke, enplegurik sortu ez, landa eremuak abandonatu, eta ingurumena galbidean jartzearaino.

Mobilizazioen aurrean, Espainiako Gobernuak 300 euroko diru-laguntza iragarri du behi bakoitzeko, produkzio kostua ordaintzeko gai ez den abeltzainarentzako. Ez dirudi nahikoa denik. Sindikatuek eskatu dute jatorritik datorren esnari salmentarako gutxieneko prezio bat ezartzea. Euskal Herriko enpresa eta foru erakundeek, baita administrazio autonomikoak ere, ezin dute esnearen sektorea hiltzen utzi, bertatik bizi direlako milaka familia, eta arriskuan daudelako nekazaritza guneak eta ingurumena bera ere.

Juan Mari Arregi

Eta 2015eko abuztuan 2008ko krisitzarra berpiztu zen

2015eko abuztu hura gertatu zitekeen AEBetako presidenteak Iranekin bake nuklearra sinatu eta Kubako komunistekin harreman diplomatikoak ezarri zitueneko oporraldi itxaropentsua, Obama-Kennedy berri baten ospakizuna. Zoriona mikazteko, ordea, lau milioi etorkin Mediterraneoan, Txinako burtsak lehertzeko zorian...

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

AKTUALITATEA GAUR DEN ZIRKOAK kasik lanbropean galduta utzi ditu 2015eko udak ekarritako bi opari diplomatiko, biak ere Barack Obama lehendakari estatu batuarrari zor zaizkionak. Irango agintariek arma nuklearren aferan lortutako itunak daukan garrantzia historiaren orrietan idatzirik geratuko da. Eta Raul Castrorekin Kubarekiko harreman diplomatikoak berpiztuz sinatutako bakeak aspaldiko keinu sinboliko sendoenaren arrastoa lagako du. Baina abuztu honek ez zuen gogorik inor albiste onekin aspertzeko.

Mendebaldeak gerrak esportatu bazizkion Ekialde Hurbil osoari, honek gerraren zipriztinak itzuli dizkio. Lehengaien –petrolioaren– kontrola segurtatuz inguru osoa katastrofe eremu bilakatzeko hautu estrategikoa, *shock* dotrina bortitza, ez zaio Europari dohainik aterako. Abuztuak oroitarazi digu, metropolian bertan sortutako jihadisten ekintza armatuekin baino are gehiago milaka etorkinen iritsierarekin.

Mikel Garcia Idiakezek ARGIA honetan aurrerago azaltzen duen moduan, etorkinen iriste masiboenarekin egin du topo aurrez aurre Europak. Abisatuta geunden, lau milioi baino gehiago daudela itsasoa zeharkatzea deliberaturik Turkian, Libanon, Jordanian eta beste hain-

batetan. Udan ikusi zaio neurria uholdeari.

Uda aurretik Calaisko tuneleko anekdotekin agintari frantses eta ingelesak arituak ziren herritarrek despistatzen. Calaiskoa ez da arazoa, horretaz ere abisatuta geunden. Zientoka gutxi batzuk kamioiren baten bila Erresuma Batura iristeko, eguna joan eta eguna etorri... talde txiki hori batere ez da Mediterraneoan egosi den milioika gizon, emakume eta haurren exodoaren erdian.

Azkenean ikusi da kazetariok Calaiskoaren erreportajeetan denbora galtzen ari ginen bitartean, urte erdian hirurehun mila iritsiak zirela Europako kostetara, Italiakorra asko, baina askoz gehiago –kasik berrehun mila– Greziako uharteretara.

Greziatik sartu den uholdeari begiratu: ez da itsasoan bat edo batzuk itotzearen konturik kasik aditzen, Turkiatik Greziaren uharte txikiren batera iristea kilometro gutxiko itsasaldiz egiten da, jendea etorri eta etorri... Hortik Mazedoniara. Hemendik Serbiara, edo Hungariara ahal balute.

Azken helmuga, Arrasateko unibertsitateen ingenieritza ikasi duten gure gazte askorena bezala... Alemania aberatsa. Eta hasi dira urduritzen eskuindar alemanak, 800.000

Times of News gunetik hartutako irudian, inbertitzaile txinatar bat jasandako galerengatik lantuan Shangaiko burtsan 2015eko Astelehen Beltzean, abuztuaren 24an. Inbertitzaile txikiek mugitzen omen dute Txinako burtsako diruaren %80. Zenbait adituren kontuetan, 80 milioi herritarrek jokatzeko zuten urte hasieran burtsan Txinan, nahiz eta uda honetan akzioak beheraka hasi zirenean askok merkatutik irtetea erabaki. Udako bi hilabete eta erdian akzioek balioaren %40 galdu dute Txinan. Bere Barne Produktu Gordinarekin %280ko zorpetze maila dauka, McKinsey aholkularitzak dioenez. Jarraian ekonomia arras moteldu da. 2008ko krisiaz geroztik munduko ekonomia aurreratuek bizi duten makalaldia goxatzen zen *emergenteen* indarrarekin, Txinaz gain Brasil, India, Hegoafrika eta eta abarrek egiten zuten makroekonomiaren motor lana. Orain hazkunde eredu hori krisian ageri da.

etorkin doazkiela. Iritsiko dira batzuk Euskal Herriraino ere. Ez ziren izango gure makina erremin-ta, tren eta autobusen salmentak globalizazioak ekarri behar zizkigun opari bakarrak.

Matxura munduko fabrika handian

Txinako burtsen eztanda izan da aktualitatearen abuztuko bigarren oparia, mundu globalizatuko indar erreala gehiago urduriarazi dituen Mediterraneoan iheslarien eromenak baino.

2008tik ikusi gabeko muturrekoak ikusi ziren San Bartolome egunez –abuztuak 24– mundu osoko burtsetan. Aurreko hilabeteetan, XXI. mende hasierako krisitzarra gainditua zelako itxurak egiten ari ziren hedabideak eta agintariak. Bat batean, egia gordina: 2008ko krisiak segitzen du lurrikara handien gisa errepikak eragiten.

Txinakoa jo daiteke 2008koaren 3.0 bertsioz. Estreinako lurrikarak AEBak astindu zituen. Haren lehen oihartzuna Europan sentitzen ari gara oraindik, Grezia amildegira hondoratuta eta Italia, Portugal edo Espainia bezalakoak, baita Frantzia bera ere, hondamendi totalaren ertzearaino eramanez.

Orain Txinatik errepika, aspaldiko galerarik handienak mundu osoko burtsetan... posible ote da



horrelako kataklismoa Pekineko agintariek beren moneta hiru kolpe azkarretan %4an debalatu izanagatik? Agian bai, mundu osoan jarduera ekonomikoa nahi baino ahulago dabilela ikusten ari diren indar handiak (inbertsio funtsak, finantza erakunde erraldoiak, fortuna itzelak...) kezkatzen hasi direlako Txinako produkzioa orain arte aitortu dena baino makalago ote dabilen. “Txinako agintariek ez dakite zer egin” irakurri zaie aditu bat baino gehiagori.

Baina arrautzaren aurretik oiloa ere bazen. Uda honetan AEBetako agintariek iragarri dute udazkenean hasiko direla indargabetzen 2008tik ekonomiari arnasa emateko erabili dituzten pizgarriak. Larry Elliotek

*The Guardian*en azaldu duenez, Mendebaldeko agintariek pizgarri bereziak erabili dituzte urteotan finantzak osasuntsu edukitzeko nahiz eta ekonomia erreala, produkzio eta salmenta, izugarri ahul egon. Dopaturik eduki dute gure ekonomia, narkotizaturik, *txute* pean, *akro*. Badakigu horrelakoetan gaixoak arindu lehen bera hartzeko gero eta dosi bortitzagoa eskatzen duela.

Hain izan da eraginkorra finantza pizgarriek ekonomia kapitalistetan eragin “goraldia”, ezen eta burtsetan burbuila berria antolatu den. Orain pizgarriak kendutakoan, dirua –dirutza handien jabeak, esan nahi da– hasi da non inbertitu bila eta horrelakoetan balio segurue-

na... herrialde gotor mendebaldarren zorra izan ohi da, AEBena nagusiki. “Igo ditzagun pittin bat interes tasak eta dirua berriro bere paradisu naturalera bihurtuko da”.

2008tik hona Txinaren zorpetze maila lau halakotu omen da. Londresko burtsaren indizea bikoiztu. Munduak ez du ikasi, antza, 2008ko kataklismotik, edo beste esplikazioa izan daiteke ortodoxia neoliberalari jarraituz labarrean behera doan bizikletaren pedalei eragitea beste aukerarik ez dagoela.

Goazen, beraz, 2008ko krisiaren 3.0 bertsio honetan aurrera eta udazkeneko bozketa, kanpaina eta propagandaren ostean, mundua XXI. mende hasierako krisitzarretik atera behar zuten BRIC herrialdeak –ai Brasil, Errusia, Txina eta enparauen ekonomia geldiezin haiek!– nor bere krisian murgiltzearekin batera Mendebalde aberatseko jende arruntak aurkituko dira behi argalezko zazpi urteotan ondo ikasi duten formularen hurrengo atalarekin: murrizketak *a-tuti-plen*.

Horixe iragartzen du Greziaren agoniak. Mikis Theodorakis musikaria buru dutela hainbat pertsonalitate greziarrek zabaldu dute erresistentziarako deia, Troikaren planak kaltegarriagoak omen direla naziek gerran egindako txikizioak berak baino. Aldiz, Europako ezkerren itxaropena piztu zuen Alexis Tsiprasek ez du ikusten ezarri zaion ituna sinatzea beste biderik, herritarrentzako hondamendi handiagoa saihestearren. Paradoxikoki, etorkinen uholdean aurkitu dezake Tsiprasek Europarekin hobeto negoziatzeko karta. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Xabier Letona



DANI BLANCO

Batasunaren indarra

LEHENENGO aldiz irailaren 27an independentzia nahi duten katalanek legezko hauteskunde batzuetan aukera horren aldeko hautua egin ahal izango dute. Trikimailuarekin orain ere, jakina, hamaikagarrenez Espainiak ez baitu onartzen legezko kontsulta zuzenik, Quebecen edo Eskozian egin zuten moduan.

Eta Espainiaren etengabeko ezezkoaren aurrean, independentistek zeharkako plebiszitua hautua egin dute. Neurgailua Junts pel Sí independentziaren aldeko hautagaitza bateratua izango da. Eta hari gehituko zaizkio, halaber, CUPen botoak.

Ezezkoaren aldekorik ez da plebiszituan, baina independentziaren aldekoak ez diren boto guztiak kontatuko dira ezezko gisa, baita federalismoaren aldeko hautua sendotuko duen Sí que es Pot hautagaitzarekin ere. Funtsean Podemos eta Iniciativak bideratzen dute saioa, eta Katalunian egiazkoa den federalismoaren aldeko indar asko batu dezake. Ikerketen arabera, herritarren %25etik %30ra da federalista Katalunian, eta multzo hori independentziara eramatea izango da epe motz eta ertainera egungo bloke independentzia zaleak izango duen erronka nagusia.

Horretarako, epe motzeko saioa irailaren 27ko hauteskundetako izango da. Ez da zalantzarik soberanismoak irabaziko dituela, bai eserlekutan eta baita bototan; baina zalantza askoz handiagoa da plebizar irabaziko duen ala ez, hau da, emandako botoen %50etik gora lortuko duen. Oso gaitza izango da, baina falta diren hiru asteetan edozer gerta liteke. Ez da

ahaztu behar iragan azaroaren 9an izandako ezustekoa: aurreikuspen guztiak hautsiz, 2,3 milioi pertsonak parte hartu zuten Espainiako Auzitegi Gorenak debekatutako erreferendum batean, horietatik 1,8 milioi independentziaren aldekoak ziren.

ORAIN 5,5 milioi pertsonak dute boto eskubidea irailaren 27an. Parte-hartzea, beraz, giltzarri izango da, baina ez dago garbi noren mesedetan, bai boto espainiar zaleak bai independentismoak haien aldekoa litzatekeela uste baitute. 2012ko hauteskunde autonomikoetan %67k bozkatu zuen, hau da, 4,1 milioi pertsonak eta CiUk, ERCk eta CUPek 1,74 milioi boto lortu zituzten.

Irailaren 27an kopuru hori gaitzuko bide dute, baina boto emaileen erdia gaitzutea giltzarri litzateke prozesuak gutxieneko

Batasunak ilusioa sortu ohi du herritarrengan, batez ere oinarri eta helburu sendoa duenean

sendotasunarekin jarraitzeko. Hori ematen ez bada ere, independentismoak gehiengoa izango bide du Legebiltzarrean, baina bistan da beste era batera jokatu beharko duela, batez ere parte-hartzearen %70 gaitzutez ez bada. Hala ere, oso posible da gaitzutea: 2012an parte-hartzea inoizko handiena izan zen hauteskunde autonomiko batzuetan (%69,5) eta oraingo motibazioak herritarrak parte hartzea deituko dituelako.

Hau ez da Quebec edo Eskoziako erreferenduma, baina Kataluniako gizartean bada aski tentsio

independentismoak irabaz dezan. Plebiszitua irabazten ez badu eta parte-hartze txikia bada independentzia prozesuak husteko arrisku handia izango du. Eta bestela ere ikusi egin behar. Azaroko erreferenduma arrakastatsua izan zen, baina ondoren soberanistak ez ziren gai izan gizarteari proposamen adostua luzatzeko eta prozesua hustu egin zen. Neke zantzuak ere sumatu ziren gizartean.

JUNTS PEL SÍ lortu du azken unean independentismoa berriz aktibatzea eta, Diada tranpolin gisa, sendo doa irailaren 27rantz. Une honetan, hori da garrantzitsua, eta orain arteko Espainiaren jarrera ikusita, badirudi Mariano Rajoyk erabaki duela bere ohiko estrategiarekin erantzutea, hau da, arazoari iskin egin eta emaitzen eta mugimendu independentistaren zain egon. Hanka

ez sartzearekin nahikoa luke bere ustez, eta horretarako ahalik eta tentsio gutxiena sortzen saiatuko da, batez ere lege eta debekuen banderak gehiegi astindu barik. Bitxia bada ere, bere alderdiaren emaitzei baino gehiago begiratu die Ciudadans eta Sí que es Pot-ek lortutakoei, lehenari espainiar zaleen gotorlekuarentzat giltzarri bilakatu delako, eta bigarrenari independentismoa ahulduko duelakoan.

Laster ikusiko dugu Junts pel Sí-ren indarra, baina denak adierazten du lortu duela independentismoa banatuta joanda baino ilusio handiagoa sortzea. Batasunak ilusioa sortu ohi du herritarrengan, batez ere oinarri eta helburu sendoa duenean. Izan Katalunian, izan Nafarroan edo izan EAEn. ■

ASTE HONETAKO

zozketa



Argiako harpidedunentzat



Kerizara Nekazalturismoa

2 lagunentzako gau bat
(astegunetan)

Otxandio (Bizkaia)
www.kerizara.es

1

GARRAXI



TABERNA

Garraxi jatetxea

Bi pertsonentzako
otordu bat

Tejeria kalea 9 - Donostia
Gipuzkoa

2

[f]arina



[F]arina Jatetxea

2 pertsonentzako
otordu bat

Urbina kalea, 5 - (Molinuevo Parkea)
Vitoria-Gasteiz ARABA

www.farinarestaurante.com

3



Leintz Gatzagako gatz museoa

2 lagunentzako
bina sarrera

Dorletarako errepidea z/g.
20530 - Leintz-Gatzaga

emaila: www.leintzgatzaga.com

4



Okatxu

komikia opari

www.argia.eus/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2471. Argia)

GARRAXI

Miren Garcia Dalmau (Hernani)

EUREKA:

Lalo Etxeberria Aranburu (Hernani)

Joseba Landaluze Moraza (Gasteiz)

STM:

Unai Bergaretxe Leibar (Arrasate)

Isabel Razkin Lizarraga (Uhart-Arakil)

Patxi Xabier Gonzalez Sanz (Gasteiz)

22M2-KARRATURA:

Miren Itziar Azkargorta Izeta (Zarautz)

Gotzon Bedialauneta Arrizabalaga (Iruñea)

Miren Iturrioz Guio (Andoain)

Jone Santamaria Azpiri (Donostia)

Iñaki Aurrekoetxea Arkotxa (Gernika-Lumo)

ILLIMANI:

Esteban Etxeberria Urreaga (Hernani)

gunea

argia

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • gunea@argia.eus

www.argia.eus/gunea



* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

 **argia eguna 2015**

TXIKITIK ERAGITEN

ARGIA EGUN TXIKIA Arrasaten Irailaren 12an
Doke txapelketa, kale animazioa, pintxo-bazkaria, kontzertuak...

TRANTSIZIOAK ERAKUSKETA

"Euskal Herriko historia hurbilari
begirada selektiboa" erakusketa
irailaren 18tik aurrera

BIZIKLETA MARTXA

Debagoienako bidegorrian zehar
(ARGIA Eguna bezperan)

BISITA GIDATUA

Aizkorri mendilerroaren bihotzean
dagoen Arrikruz kobetara bisita
(ARGIA Eguna bezperan)

AZOKA ALTERNATIBOA

Herri eragileen azoka
lekuko produktuekin

IBILALDI KULTURALA

Oñatiko ondare historikoa
ezagutzeko ibilbidea

HERRI BAZKARIA

Bertako eta garaiko elikagaiekin
hornitutako bazkaria

JOLAS HEZITZAILEAK

Tailerrak haurrentzat eta helduentzat

JOLAS ALDARRIKATZAILEAK

Nortasun agiri arrotzen jaurtiketa

BIZI BARATZEA

Jakoba Errekondo eta
komikilariak galderak jorratzen

KALE ANIMAZIOA

Bertsolariak, batukada,
herrixka kantuan, ...

KONTZERTUAK

Inguruko euskal musika
taldeen emanaldiak

OÑATI - IRAILAK 20

Debagoienako harpidedunen eta eragileen laguntzarekin osaturiko egitaraua



OÑATIKO UDALA